

**2024KO ABENDUAREN 27KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA
DE FECHA 27 DE DICIEMBRE DE 2024
(TRADUCCIÓN)**



AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau “Axier Garate Azpitarte batzarkide jaunaren batzarkide-egiaztagutuna.”	4
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau .. “Urtzi Ostolozaga Arrien batzarkide jaunaren batzarkide-egiaztagutuna.”	4
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau “Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua.”	5
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	5
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- EH Bildu taldeko Casanova Alonso batzarkide jaunak hartu dau berbea	17
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	23
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea.....	25
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	28
- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- EH Bildu taldeko Casanova Alonso batzarkide jaunak hartu dau berbea	32
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	35
- Batzarra amaitu da.....	38



2024ko abenduaren 27ko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 27 de
diciembre de 2024 a las 09:00
horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señores y señoras, señora Diputada General, apoderados y apoderadas, estimados junteros y junteras, a las personas que están hoy con nosotros/as; por supuesto, a los compañeros y compañeras de los medios de comunicación, y a todas las personas que seguirán esta Sesión Plenaria a través de streaming, buenos días. Y, una vez más, gracias por seguir esta Sesión Plenaria.

Comenzaremos desarrollando el Orden del Día y, para ello, señora Secretaria, ¿cómo dice el primer punto?

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak: Buenos días.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Credencial

[\(R.E.12/E/2024/0002832\)](#)

Autor: JUNTA ELECTORAL CENTRAL

Asunto: Credencial de Apoderado de D.

Axier Garate Azpitarte.

Documento Principal:

[\(R.E.12/E/2024/0002832\)](#)

Expediente: [\(12/C/03/0001551\)](#)

1.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Batzarkide-agiria

[\(12/E/2024/0002832SE\)](#)

Egilea: HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA

Gaia: Axier Garate Azpitarte batzarkide jaunaren batzarkide-egiaztagutuna

Dokumentu Nagusia: [\(12/E/2024/0002832SE\)](#)

Espedientea: [\(12/C/03/0001551\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: De conformidad con la normativa vigente, se emplaza al juntero D. Axier Garate Azpitarte para que manifieste de forma fehaciente su conformidad con todas las obligaciones que dicha normativa establece, así como con los derechos que se le ofrecen. Solicitaremos al señor Garate Azpitarte que tome asiento en el escaño que le corresponde. Se da por realizado el llamamiento.

¿El segundo punto del Orden del Día?

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

2.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:



Iniciativa Originaria: Credencial
[\(R.E.12/E/2024/0002865\)](#)
Autor: JUNTA ELECTORAL CENTRAL
Asunto: Credencial de Apoderado D. Urtzi Ostolozaga Arrien.
Documento Principal:
[\(R.E.12/E/2024/0002899\)](#)
Expediente: [\(12/C/03/0001557\)](#)

Jatorrizko ekimena: Batzarkide-agiria
[\(12/E/2024/0002865SE\)](#)
Egilea: HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA
Gaia: Urtzi Ostolozaga Arrien batzarkide jaunaren batzarkide-egiaztagutuna
Dokumentu Nagusia: [\(12/E/2024/0002899SE\)](#)
Espediente: [\(12/C/03/0001557\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: De conformidad con la normativa vigente, se emplaza al juntero D. Urtzi Ostolozaga Arrien para que manifieste de forma fehaciente su conformidad con todas las obligaciones que dicha normativa establece, así como con los derechos que se le ofrecen. Solicitaremos al señor Ostolozaga Arrien que tome asiento en el escaño que le corresponde. Se da por realizado el llamamiento.

¿El tercer punto del Orden del Día?

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Proyecto de Norma Foral de Presupuestos
[\(R.E.12/E/2024/0001985\)](#)
Autor: Diputación Foral de Bizkaia
Asunto: Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025
Documento Principal: [Enmiendas Reservadas Traducción Motivaciones](#)
Boletines: [Admisión a trámite](#) (2A), [Enmiendas: Notas tramitación enmiendas Presupuestos](#) (2B), [Enmiendas a la totalidad: Admisión a trámite](#) (2C), [Enmiendas particulares. Admisión a trámite](#) (2D), [Acuerdo del Pleno](#) (2E), [Dictamen de la Comisión](#) (2F), [Enmiendas: Reservadas para el Pleno](#) (2G)
Expediente: [\(12/A/09/0001442\)](#)

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Aurrekontuen Foru Arau Proiektua [\(12/E/2024/0001985SE\)](#)
Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia
Gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua
Dokumentu Nagusia: [Osotasunezko zuzenketa-eskeak Arrazoiak itzulpena](#)
Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (2A), [Zuzenketa-eskeak: Aurrekontuetako zuzenketa-eskeen bideraketari buruzko oharra](#) (2B), [Osotasunezko zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (2C), [Zatizko zuzenketa-eskeak. Izapidetzeko onartzea](#) (2D), [Plenoko Akordioak](#) (2E), [Batzordearen Erizpena](#) (2F), [Zuzenketa-eskeak: Osokorako gordetakoak](#) (2G)
Espediente: [\(12/A/09/0001442\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Daremos inicio al debate del Presupuesto. Para ello, tal y como saben, comenzaremos con el turno de los grupos que han mantenido enmiendas. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos y a todas. Espero que hayan podido descansar y disfrutar de estos días en buena compañía, para afrontar con energía el último día de este largo trámite presupuestario.



Tal y como manifestamos durante el Pleno de enmiendas a la totalidad, desde Elkarrekin Podemos consideramos que este presupuesto no tiene ninguna medida de calado para abordar de forma decidida las importantes transformaciones que tenemos como sociedad.

Este proyecto presupuestario contiene la misma batería de medidas de siempre, en la dirección de siempre, que no rectifican cuestiones que son clave para generar una sociedad resiliente y fuerte en un cambio de época como el que estamos viviendo.

Eta errazoi horregaitik, hain zuzen be, 206 zuzenketa-eske aurkeztu ditugu, aurrekontuen proiektuak ez daukalako oinarritzko elementuak aldatzeko neurririk ezta horreetan eragiten dauzanik be. Gure lurraldea garai barri horretarako prestau daiten 206 zuzenketa-eske, gure gizarte indartzeko, jentea babesteko eta persona guztiei bizitza duinak bermatzeko. Eredu alternatibo baten oinarriak jarri daiguzan aurrekontu honen 450.000.000 baino gehiago mobilizau doguz, %20 baino gehiago.

Hain zuzen be, gure proposamenak batez be 6 arlotan taldekatu leitekez. Lehenengoa, aberastasunaren banaketea hobetzeko neurri fiskalak: gizarte-desbardintasunen murrizketan eragin zuzena daben neurriak dira eta, beraz, gizarte-kohesinoaren mailak nabarmen hobetzen dabez. Bizkaiko garraio publikoaren sistema hobetzeko jarduketak, batez be gitxien horniduta dagozan eremuetan. Gure proposamenek hobetu egiten dabe Bizkaibusek eta Metro Bilbaok eskaintzen daben zerbitzua.

Trantsizino energetikoaren arloan neurri barritzaileak sartu doguz, neurri egingarriak eta beharrezkoak. Neurri horreek herritarrek ekoizpenaren, garraioaren eta energia elektrikoaren kontsumoaren kontrolean ahalduzko mekanismoen lanketan eta inbersino publikoan oinarritzen dira.

Mendekotasuna daben personentzako arreteta hobetzeko neurriak, eta, batez be, etxeko arreteta eta zaintzea hobetzeko neurriak. Bizkaiko ume eta nerabeen zaintza-eta arreta-politikak hobetzen dabezan neurriak be sartu doguz. Hainbat neurri proponidu doguz jasaten dogun krisi klimatikoagaz eta ingurumenagaz koherentea dan azpiegitura-politika bat garatzeko, eta, aldi berean, jentearen eskaerei erantzuteko.

Eta, azkenik, zerbitzu publikoak kudeatzeko eredu alternatibo bat proponidu dogu, guztiona dan hori indartzeko proposamenak. Baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak eraginkortasunez kudeatuko dituan eredua. Neurri barritzaileak, neurri eraldatzaileak, bizi dogun garaiari eta egoereari egokituak, proiektu alternatibo bat eskaintzen daben neurriak.

Kapitala eta espekulatzaileak saritzen dauzan zerga- eta tributu-sistemearen aurrean, Elkarrekin Podemosek persona guztientzako zuzentasuna eta bardintasuna eskaintzen dauz. Bidezkoa dan zerga- eta tributu-sistema bat behar dogu, errenta bajuei laguntzeko eginahalak egingo dituana, errenta ertainak menperatzeari itxiko deusana eta errenta altuei euren aukeren arabera ordaintzeko eskatuko deusena.

Garraio-sistema desorekatu eta garraiobide gehiago dabezan udalerriei laguntzen deusen garraio-sistema baten aurrean, baliabide gehiago proponidu doguz eskariari egokitutako banaketea egin ahal izateko eta gehien behar daben udalerrietan garraio-sarea indartzeko.

Era berean, tarifek %50eko hobaria izaten jarraitu dagiela proponidu dogu, nahi-ta hori horrelan izango dan datozen 6 hilebeteetan, eta ez, hain zuzen be, Gobernu honi esker, ezpada Podemosek Kongresuan egindako esku-hartzeari esker.



Como ven, son medidas para mejorar la vida de la gente, medidas que lo que dibujan es un proyecto alternativo, de progreso y adaptado a la realidad que vivimos. También en materia de transición energética. Sí, también eso. Porque frente a las medidas de este gobierno, que centran sus actuaciones en fortalecer a las grandes energéticas y en la transición energética exclusivamente del sector industrial, nosotras proponemos que se atienda de igual manera a otros sectores económicos, que se incorporen medidas para reducir el consumo energético y que se traslade una parte importante del poder sobre la producción energética a la gente y a sus comunidades.

Herritarrei entzuten ez deuts en eta inongo baliorik ez daukien proiektuak derrigortzen saiatzen dan ezpiegitura-eredu baten aurrean (itsasadarpekoa edo Guggenheim, esaterako), Elkarrekin Podemosek gizarte-preminei erantzungo deutseen azpiegituren alde egin dau, balioa emongo deutseen azpiegituren alde, La Avanzada osorik lurperatzearen alde, Lamiakoko metroa lurperatzearen alde, Usansoloko metro-geltokiaren alde, edo Metroaren laugarren lineari konponbidea emotearen alde, al bait arinen martxan jarri daiten. Esku pribaduetan jarteko publikoa dana hustu egiten dauen kudeaketa-eredu baten aurrean, gure pentsino-sistema publikoa kaltetzen daben BASEak indartzea edo irabazi-asmoa daben kudeatzaile pribaduen esku dagozan gizarte-zerbitzuak handitzea lako neurriakaz, Elkarrekin Podemosek neurri batzuk proponidu dauz publikoa dana indartzeko eta blindatzeko, baliabideen gaineko kontrola bermatzeko, emoten diran zerbitzuen kalidadea hobetzeko.

Mendekotasuna jagoteko sistema indartzeko eredu alternatibo bat be proponidu dogu. Zuon *low cost* arreta-ereduaren aurrean, zaintza-lanak etxean egiten dabezan emakumeen kontura, Elkarrekin Podemosek zaintza-sistema bat planteau dau Administrazino Publikoak bere erantzukizuna onartu dagian eta etxeko zaintzearen arloan daukazan eskumenak garatu daizan. Etxean kalidadezko zainketak emongo dauzan sistema planteau dogu, Erkidegoan laguntza-sare bat sortuko dauena, zaintza horreek behar dabezan personei zein jagoleei laguntzeko eta euren alde egiteko.

Zaintzearen lana duindu egiten dogu, egiten daben lanaren arabera modu duin eta bidezkoan ordainduta, eta gauza bera egin dogu babesbakotasun-egoeran dagozan Bizkaiko ume eta nerabeei eskaintzen jaken arreteagaz. Berez pobrezia bera sisteman sartzeko errazoi bihurtu dan eredu instituzionalizatzaile baten aurrean, prebentzinoan gehiago inbertidu daitela proponidu dogu eta baliabide espezializau gehiago egon daitezala gaixotasun mentala daben edo toxikoak kontsumiduten daben kolektibo batzuen behar espezifikoek erantzuteko. Ez bakarrik sintoman jarduteko proposamen bat, ezpada babesbakotasun-egoerek eragiten dabezan errazoietan be lan egiteko.

Halanda be, tira, Gobernu honek ez dauz neurri horreek kontuan hartu, eta pilotu automatikoagaz jarraitzen dau, gure ikuspuntutik. Eta, itxidazue, baina zuen errezetek ez dabe balio egungo testuingururako, ezta gure lurraldea indartzeko be, krisi ekosozial baten erdian.

Zurro jaunak, aurreko Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa-eskea eztabaidatzen ari ginanean, Aurrekontu honen akordioaren aldera pasetako konbitea egin eustan. Izan be, gure alderdi politikoak ja gobernau ebala aitutzen eban, eta askotan gorriak ikusiarazo geuntsazala gogoratzen eban. Eta gauza baten errazoi dozu, Zurro jauna. Estaduko Gobernu zuokaz osotu genduanen ez dakit gorriak ikusiarazo ete geuntsuezan, ez dot hori bizi izan, baina badakit ahalegin handiak egin genduzala alternatibea izateko, gizarte-babesean aurrera egiteko, gizarte-eskubideetan aurrera egiteko eta eskubideak blindatzeko. Horrek bere ondorio handiak ekarri zituan Podemosentzat, eta gaur egun hondinokarren be jasaten doguz, baina unada gogor baten, hau da, COVID pandemiaren eta ondorengo krisi ekonomikoaren ondoren, harrotasunez esan neike Europar Batasuneko beste edozein herrialdek baino hobeto eutsi geuntsala, jentea erreskatetearen aldeko apustua egin gendualako, eta ez bankuak erreskatetearen alde. Arlo publikoa eta zerbitzu publikoak indartzearen alde egin genduan, eta



ez murriztearen alde. Izan be, kostau jakun arren, PSOEk ulertu eban errezetak aldatzeko eta erantzun alternatiboak proposiduteko unea zala.

Ni prest nago alde horregaz bat egiteko, Zurro jauna, baina ikusten dodanean gobernu honen borondatea aurrera egitea dala, eraldatzea, indartzea, ez beti lez jarraitzea, dana bardin egongo balitz lez edo bardin jarraituko baleu lez. Zuk argi-argi esan zenduan aurreko Osoko Bilkuran, Euskal Herria Bildugaz egin zenduezan negoziaziozino proposamenei buruz. Esan zeuntsen argi izan behar ebela akordio horretara sartzen zala Aurrekontua indartzeko, gehitzeko edo aldatzeko, Gobernuak Euskal Sozialisten eta Euzko Abertzaleen arteko akordioaren ondoren ezarri dauen ibilbide-orrian oinarrituta.

El señor Lekerikabeaskoa lo decía también, aunque con otras palabras: “para acordar con nosotros, no nos pidan y no nos obliguen a renunciar al compromiso que hemos adquirido con la ciudadanía”. Y les vuelvo a repetir. Elkarrekin Podemos está en este Parlamento como en otros, para transformar, para ofrecer un modelo alternativo y no para apostillar una hoja de ruta que, como ya he explicado, no compartimos.

Euskal Herria Bilduk honetan sartu eta beste aldera pasetea ebatzi badau, uste dot Euskal Herria Bilduk emon behar dauzala azalpenak. Gu koherenteak eta arduratsuak gara bizi dogun egoereagaz.

Eta Casanova jauna, zuon akordioari jagokonez, benetan, ez dot ulertzen, ez nator bat horregaz. Gure ustez, sinatu dozuen akordioa ez jagoko gobernau gura dauen alderdi bati, arabere gitxiago gobernuaren alternatiba lez agertzen dan alderdi bati. Begira, inbestidurako Osoko Bilkuratik (urtebete eta 5 hilebete eskas igaro dira), honako gauza batzuk esatetik pasau zarie, eta zure berbak berbaz berba irakurriko dodaz. “Uste dogu sinisgarritasuna eta legitimidadea daukaguzala Bizkaian gauzak beste era batera egiteko alternatiba bat dagoala aldarrikatzeko”, esaten zenduan. Era berean, zera esaten zenduan: “lurralde hau beste batzuek gobernetako eta beste era batera gobernetako abiapuntua dago”. Eta, gainera, zera gaineratu zenduan, “Amaitzeko, Bizkaiko Lurralde honetan ezkertiarak dirala aldarrikatzen daben alderdiei dei egiten deutset, Herrialde honen etorkizunean kokatu daitezkan edo non kokatuko diran ikusi dagien: edo gizarte-politiken zerbitzura ezkerreko gehiengoak eregiten; edo Euzko Alderdi Jeltzalearen edo, beharbada, Alderdi Popularraren eremuan kokatzen diran, saihestezina dan aldaketea geldiarazoten”. Amaitzeko, zera esan zenduan, “uste dot erantzuna lehenengoa bada, hau da, ezkerreko etorkizuneko proiektu baten eraikuntzan kokatzen zariela, alkar ikusiko dogu”.

Señor Casanova, en el acuerdo que ha firmado, no hay medidas alternativas. Todo lo que ha firmado son actuaciones que el gobierno quería hacer. Estaban en los presupuestos. Y usted no ha hecho más que blanquear las políticas que ha criticado. Usted ha criticado duramente el continuismo de este gobierno,... y lo acordado tiene las mismas bases, las mismas recetas, las mismas líneas de actuación. El Gobierno de Bizkaia no necesitaba el apoyo de EH Bildu para aprobar los presupuestos.

Eta, orduan, ze gobernu-alternatiba zarie, Gobernu honen neurriak sendotu, finkatu, oinarritu eta babestu egiten badozue? Inbestidurako Osokoan ezkerreko gehiengo eregiteko deia egin zeunskuen, eta urte eta erdi geroago errejeta kontinuitista horreekaz bat egin dozue. Sano kezkarria da, sano kezkarria; aspaldi hasi zenduen marketin-kanpainak be jenteari bizkarra emotera eroan zaitue argazki baten aterateko baino ez.

Argi itxi dozue, aurrekontu honen babesagaz, ez zariela ezeren alternatibea, ezpada, ez dakit ondo, eta horretan zalantzak daukadaz, EAJren makulua izan gura ete dozuen, edo EAJren politikak aplikauta gobernau gure ete dozuen, baina 2.0 eran. Akordio bat sinatu dozue hain ezkertiarak diranakaz, hain ezkerrekoak diranakaz ze



migratzaileak banatzeaz berba egiten daben, enpresa energetikoei zergea kendu gura deuseen, atera eragiteak arindu gura dabean, fiskalitate atzerakoa ezarten daben, eta behar dan ezkerreko edozein alderdiren neurri luze bat kendu gura daben.

Edozelan be, nik aurreratzen deusuet ezin izango dozuela horrelan gugaz kontau. Gure taldeak, Elkarrekin Podemosek, lanean jarraituko dau alternatibea eregiteko, azken finean, gehiengo sozialaren bizitzea hobetuko daben proposamenak Ganbera honetara ekarten jarraitzeko. Lanean jarraituko dogu guztiok bardintasunean oinarritutako Bizkaia bat eregiteko, non gizarte-kohesinoa errealdade izango dan, eta horretarako, daborduko apurtu dan kontratu soziala berrezarriko dauen proiektu alternatibo bat behar dogu.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martin.

A continuación, el turno del grupo que ha mantenido la enmienda. Es el turno del Grupo Popular Vizcaíno. Por lo tanto, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Gaur 2025eko Aurrekontuen Foru Arauaren zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko doguz. Abenduaren 13ko Osoko Bilkuratik gatz. Bertan, 3 osoko zuzenketa-eske egin ziran, baina azkenean horreetako bat azken unean kendu eta kontu honeen isileko babes bihurtu da. Alderdi Popularreko Batzarkide Taldeak bere osoko zuzenketa-eskea aurkezteko daukazan oinarritzko errazoiak dira, egungo arazoak konpontzen ez dabean eta etorkizuneko beharrei aurre egiten ez deuseen kontu kontinuista eta diru-bilketako kontu batzuen aurrean gagozala. Aurrekontu horreek, gainera, ez deusee konponbiderik eskaintzen enpresa txikiei, autonomoei eta herritarrei, eta gainera, ziurtasuna eta lasaitasun ekonomikoa emoten dauen zerga-erreformatik urrun dagoz; arabere gehiago, neurribako diru-bilketaren ikuspegia erakusten dabe. Horreek izan ziran osoko zuzenketa-eskeari buruzko abenduaren 13ko Osoko Bilkuran argudiatu genduzan errazoiak.

Eta nik gehituko neuke, edo gehitu gura dot, hau ez dala beste urte bat, ezta edozein urte be oraingo legeintzaldian. 2025eko aurrekontuak eta orain hartuko diran politika publikoek zehaztuko dabez foru-gobernu honen ekintzak eta Bizkaiak datozen urteetan izango dauen zeregina. Legeintzaldi honen erdialdera heltzen ari gara, eta, gure aldetik behintzat, Etxe honetan gitxiengoa garan arren, ez dogu igarten espiritu erreformistarik ezta etorkizunerako proposamenik be, ezpada Gasteizeko oihartzun askoz be deterministagoa. Lehendakari izeneko alkar bat gogorazoten dau gehiago, Bizkaiari bidea erakusten deus Herri Dirubideen Euskal Kontseilua, azken baten, itun exogeno bat daukan aurrekontu exogeno bat. Hori ikusten dogu aurrekontuetan.

Baina nik, gainera, Aurrekontuen Osoko Bilkuran batzuetan mahai gaineen geratzen dan zezer aitatu gura dot: diru-sarrerei buruzko kontu bat. Eta guk egiten dogun galderetako bat da zein egoera ekonomikotan dagozan eginda aurrekontu honeek, zein oinarriren gaineen. Datuen sendotasuna eta Bizkaiko errealdade ekonomikoa aitatzen deuskuzue barriro. Bizkaiko errealdade ekonomikoa hain sendoa al da? Merkaduen ziurbakotasunei lotuta dago ala ez? Frantziak, Alemaniak, Belgikak eta Erresuma Batuak eragiten al deuskue, gure esportazioen %50aren jomuga diranean? Gure industriaren BPGd-aren ehuneko handi bat dan automobilgintzearen sektoreak eragiten al deusku? Inflazioak



eragiten al deusku? Eragiten al deusku inflazino horrek eragindako kontsumoaren atzerapenak? Eragiten al deusku eraikuntzearen etenaldiak, begi-bistakoa dan honako kontu hau kanpoan itxita, hau da, etxe gehiago barik ez dagoala etxebizitza gehiago, sinplea dala emoten dauen arren?

Ba nik zeozer gehiago aztertu gura neuke diru-sarreraren kontu hori. Hirugarren hiru hilekoan euro-guneko ekonomia %0,9 hazi zan, Alemaniakoa %0,3, eta Frantziakoa %0,4. Eragiten al deusku egoera horrek? Bai, jakina. Eta danok industriaren sektorea handitzeaz ari garanean, balio handiagoa eta enpleo hobeak ditualako, azkenean ikusten dogu zerbitzuek bultzatzen dabela Bizkaiko ekonomiaren hazkundea. Industria-ekoizpenaren indizea %1,5 jatsi da, eta urte arteko jatsieria %4 ingurukoa izango da. Hori argi agertzen da enpleoan: 65.000 beharleku, 2023an baino %10 gitxiago. Datu hori sano esanguratsua da, %8,1eko langabezia-tasea kontuan hartuta (Euskadiko batez bestekoa baino puntu erdi gehiago), eta horrek arduradun politikooi kezkea sortu behar deusku, argi eta garbi.

EB osoko inflazinoa %2,3koa da; argi dago esportazinoek jasango dabela. Espainian egia da desinflazino-prozesuan gagozana, baina KPIaren osagai desbardinak dirala eta, sano desbardinak dira; Bizkaiko familiei Gabonetan bertan galdetzea baino ez dago. %1,9an gagoz, %2,4ko azpikoagaz, baina ez dogu ahaztu behar orain dala 15 hilebete elikadurearen KPIa %16,6 izan zala, errenta erabilgarriarentzako eragin negargarria.

Automobilak eragiten deusku, lehen esan dot, batzuei bardin jake Europako herrialdeetako motor elektrikoaren nahaste hori, edo konbustino-motorra galarazotea. Gora ideologia. Gainera, beste batzuk motibau egiten dira turismoa eta zerbitzuak deabrutzeagaz, Bizkaiko hazkundearen eragile diran arren; edo, etxebizitza-legeen bidez segurtasun juridikoaren aurkako eraikuntzea bertan behera ixteagaz. Eskerrak, esango neuke, produktu energetikoen esportazinoak gora egiten ari diran, beheranzko joerea daben esportazinoetan; eta, mesedez, esango neuskizue energiaren esportazinoen sektore hori ez daizuela hondatu.

BPGd %1,9 haziko dala kalkulau da, baina 2023an %2,7koa izan zan. 2025a 2024a lakoa bada, honako galderea geratzen jaku: ea hori dan EAJk bere bazkideakaz gura dauen Bizkaia. Ez da gure alderdiak gura dauena, ez da PPK gura dauena. Guk gehiago lortu gura dogu, Bizkaia gehiago lortu gura dogu. Harenbaten, Ogasun diputaduak esango deust diru-sarrerearen zerga-eragina ez dala hainbestekoa. Mutualisten epaien aplikazinoari aurre egin ahal izan deusagu edo egin ahal izan deutse bizkaitarrek mutualidadeen kotizazinoei, ia 400.000.000, eta horrek be eragina dauka 2025ean. Eta, bide batez, hemen garrantzitsua iruditzen jatan gauza bat gogorarazo gura dot; batzuetan Bizkaia Denontzat esloganagaz gagoz, eta ideologia desbardinak izan arren alderdiak be gauza askotan ados jarten dirala ikusi daigun, gogorarazo gura dot alderdi honek Podemosen proposamen baten alde bozkatu ebalda egindako diru-ekarpenak itzultzeko eskubidea izan leikien mutualista guztiei idatzi bat bialtzeko, ados, eta hori gobernu taldeak atzera bota eban. Askotan Denontzat aitatzten dogulako dinot, baina jentea ahaztu egiten jakulako.

“Diru-sarrerak ez doaz gorantza, atzerantza baino”, esaten eustan Berrojalbiz andreak. Zuzeneko zergapetzea enpleoaren ondorioz doa gora. Egia da hondino indartsu egoteari eusten deusana. Gure diru-sarrerak atxikipenakaz eta soziedadeakaz lotzen ari gara, hori be gora egiten ari da, baina zeharkako zergapetzeagaz arazo bat daukagu, eta badakigu; BEZagaz arazo bat daukagu, azken baten zeharkako zergapetzea %70ekoa da-eta. 2023ko diru-bilketea %12,3 jatsi zan, eta 2024an %12 gitxiagoan gagoz. Hidrokarburoak be jatsi egin dira, baina beste zerga batzuk gora egin dabe. Eta zerga barriak sartzen ari gara, eta, bide batez, hemen be esan gura neban batzuetan emoten dauela zergapekoak zoratzen ari garala zerga barriakaz, eta horren adibide garbia da aurtengo plastikoena, enpresen artean zalaparta handia eta arazo ugari sortzen ari dana.



Diru-sarrerak bete ahal izango doguz, Foru Gobernuako kide jaun-androk. Baina gaur hemen aurrekontua aztertzen ari gara, eta sakon aztertu ezkeror, zera pentsaturazoten deusku, hau da, zerua ez dagoala hain urdin Bizkaian, ez dagoala hodei barik, ez dala egia, ez dala egia, zerumugan hodeiak dagozalako. Eta, jakina, aurrekontu honeek elementu bat izan beharko leukie hodei horreek desagertzen joan daitezkan, eta ez zeruan hodei gehiago jarteko. Horixe da diru-sarrerei buruz esan gura nebana sarreran, bai eta osoko zuzenketa-eskearen errazoei jagokenez be.

Baina gaur hemen zuzenketa-eske partzialak be aztertzen ari gara, eta zehetasunetara joko dogu. Sailek 1.650.000.000 euro izango dabez aurrekontuan, Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenaren %3,8ko igoereagaz, baina ez dogu ahaztu behar bizkaitarrok 6.700.000.000 euro jarri behar deusaguzala Eusko Jaurlaritzari, ados? Guk, batzarkide-talde lez, 161 zuzenketa-eske partzial aurkeztu doguz, 86.000.000 euroko balioagaz.

Seguru gagoz Bizkaiak potentzial handia daukana, baina ikuspegi argia eta eraldatzailea behar dau, benetako hobekuntza-aukerak behar dauz, gastua modu eraginkorrean kontrolauko dauen aurrekontuaren aldeko apustua egin behar dau, egungo eskarietara egokituta, zergadunei zergak handitu behar barik. Jakin badakizue zein dan Alderdi Popularraren politikea hemen, askotan entzun deustazue hori. Gure erakundeakazko identifikazinoa gitxiesten ari gara gehiegizko diru-bilketearen ondorioz, eta horrek izugarri kezkatzen nau.

Hona hemen zuzenketa-eske partzialen laburpena: Ekonomia Sustapena, 35 zuzenketa-eske, 9.000.000 euroko balioagaz; Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa, 29 zuzenketa-eske, 27.000.000 euroko balioagaz; Ogasuna, 4 zuzenketa-eske, ia 1.000.000 euroko balioagaz; Euskara, Kultura eta Kirolak, 18 zuzenketa-eske, 2.000.000 guztira; Azpiegitura eta Lurralde Garapena, 20 zuzenketa-eske, guztira 14.000.000: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna, 15 zuzenketa-eske, 12.000.000 euroko zenbatekoagaz; Gizarte Ekintza, 25 zuzenketa-eske, 12.000.000 euroko zenbatekoagaz; Ingurune Naturala eta Nekazaritza, 18 zuzenketa-eske, 4.000.000 euroko balioagaz.

Zehetasunetara joango naz. Ekonomia Sustapenean 35 zuzenketa-eske. Jakina, Alderdi Popularrarentzat, eta askotan entzun deuskuzue hori be, autonomoak eta ETEak funtsezko pieza dira hazkundera bizkortzeko eta enpleoa sortzeko orduan. Eta, horregaitik, autonomoei eta ekintzaileei laguntzeko neurriak proponidu doguz, hiru alderditatik ikusita: jarduera bat hasi gura dabenei laguntzea, jardurea hasi dabenei laguntzea, eta autonomoen gizarte-babesa hobetzea, bigarren aukerea ahalbidetuta.

Zalantza barik, Bizkaiak oinarri industrial sendoa dauka eta inbersinoa erakarteko potentzial handia; oinarri industrial sendoa eta inbersinoa erakarteko potentzial handia daukaz, beti be ETEei laguntzeko neurri egokiak, ekonomia zirkularraren sustapena eta atzerriko inbersinorako biztugarriak ezarten badira. Gure alderdi politikoan gure ekonomiaren funtsezko zutabe lez defendiduten dogu industria, baina badakigu asmo oneko adierazpenak ez dirala nahikoa, ekintzak behar dirala, beharizanen neurriko politikak, egonkortasuna, ziurtasuna eta segurtasun juridikoa behar dauzan sektore bat sustatzeko neurri zehatzak. Arabere gehiago, susperraldi ekonomikoaren preminen azterketa partekatuan, batez be enpresa-lehiakortasunari, digitalizazinoari eta enpleo autonomoari jagokenez, gaur harenbaten 3 bazkideek onartuko daben aurrekontu honetan, esango neuke ez dogula ikusten hori helburuetako bat danik. Gure ustez ekintzailetzearen aldeko erronka bat dago. 2020tik aurrera 400 enpresa industrialen galereari buelte a emon behar deusagu, enpresen fiskalidadeak kezkatu egiten gaitu, eta ETEen lehiakortasunak, behargin kualifikauak aurkitzeko gaiztasunak eta finantzaketea eskuratzeko gaiztasunak be kezkea sortzen deuskue.



Esan dodan moduan, autonomoak babestea, tokiko merkataritzarako biztugarriak, ekintzailearentzako arreta-puntu bat sortzea (EAP) proponiduten dogu. Eta, alde horretatik, Ekonomia Sustatzeko diputaduari dinotsat guk EAP puntuari buruz daukagun ikuspegia askoz be orokorragoa dala, eta ekintzaileei askoz be zerbitzu gehiago emotea dala, jardueren arabera segmentauta, eta hori dala guk ikusten dogun eukiezetako bat. Ekonomia Sustapenean *soft landing* estrategia bat daukagu Bizkaian inbertidu gura daben nazinoarteko enpresentzat. Batuz sistema barria ezarteko eta *crowdfunding* eta *crowlending* programak sustatzeko ehuneko ehuneko dirulaguntzak.

Garraioa, Mugikortasuna eta Turismoa. Horixe izan da, PPren barruan, legegintzaldi honen urtebete eta pikuan nabarmendu dogun beste arlo bat. 28 zuzenketa-eske horreek (28.000.000) Metro Bilbaoko ordutegiak zabaltzetik abiatzen dira, gaueko zerbitzuak sartu daitezkan. Askotan entzun deuskuzue Bilboko aireportua lotzeko azterlana, eta hori behin eta barriro esaten jarraituko dugu etxe honetan, harik eta konektibidadea lortzen dogun arte.

Bizkaibusen zerbitzua hobetzea. AVEren Abandoko geltokiaren finantzazinoa, eta Matiko eta Moyuaren arteko laugarren linearen jatorrizko proiektua berreskuratzea. Metro geltoki bat eregitzea Usansoloko erdigunean. Modernizazio teknologikoa, *Contact less* ordainpeko gailuen instalazinoa Metro Bilbaon eta Bizkaibusen. Garraioan urteko bonuari buruzko azterlana, eta orain 12 urtetik beherakoentzat eskatu doguzan zerbitzuen doakotasuna. Azken hori, antza, egingo da.

Azpiegituran eta Lurralde Garapenean, 14.000.000 eta 20 zuzenketa-eske, 3 proposamen nabarmen dabezanak: Errekaldeko zubibidea erastea, trenbide-pasaguneak kentzea, itsasadararen bi ertzak lotuko dituan zubi-sare bat egitea, eta Sollubeko tunela. Aurrekontu honeetara beti dakargun beste zuzenketa-eske partzial bat motorzaleentzat arriskutsuak diran babesgarriak apurka-apurka kentzea da.

Enpleguan, Gizarte Kohesioan eta Berdintasunean, gure 15 zuzenketa-eskeak emakumeen eta gazteen langabezia-tasea murrizteko erronkan oinarritzen dira. Sortzen ari diran sektoreetako prestakuntzearen eta eskariaren arteko desorekea (personak kudeatzen dabezan zentroei laguntzeko dirulaguntzetatik abiatzen diran proposamenakaz), edo desgaitasun intelektuala daben personak laneratzea. Emakumeentzako egonkortasun-programak, programazioan eta digitalizazioan prestakuntzea, eta laneratzeko gaiztasunak dabezan kolektiboentzako beren-beregiko prestakuntza-programak.

Ogasunean, gure 4 zuzenketa-eskeak izapideen sinplifikazioan, karga administratibo eta fiskalaren murrizketan eta Batuz sistemako leiho barrien sistemearen erreforman oinarritzen dira.

Gizarte Ekintzan, 25 zuzenketa-eske ditugu 12.000.000 eurogaz. Oinarrian, honakoak sartu dira: Gueñesen edadekoen zentro bat sortzea, autismoaren espektroko adinakoentzako etxe bat edegitea eta gazteentzako laguntza psikologikoan espezializautako zentro bat.

Euskara, Kultura eta Kiroletan, gure 18 zuzenketa-eskeen artean eskola-kiroleko kirol-instalazioak hobetzea, Gallartako Meatzaritzaren Museoa hobetzea eta La Reineta funikularra birmoldatzea dagoz.

Ingurune Naturalean eta Nekazaritzan, gure 18 zuzenketa-eskeen helburua da Gorlizko Fauna Zentroa berreskuratzea, fauna basatiak eragindako kalteak arintzeko laguntzak handitzea eta Bizkaiko hondartzetan plastikoak garbitzeko programa bat sortzea.

Honeexek dira, arin irakurrita, Foru Aldundiaren 2025eko Aurrekontuari egin deusaguzan zuzenketa-eske partzial guztiak. Beharbada zuzenketa-eske horreen



aurkezpenak erakusten dau, edo erakutsi gura dau Alderdi Popularraren konpromisoa bizkaitarren beharretara bideratutako aurrekontu efizienteago, ekitatiboago baten alde egiten dauela. Gure proposamenak, egungo eskaerei erantzuteaz gain, Bizkaiaren etorkizunaren aldeko apustua egiten dau, Lurralde liderra, inklusiboa eta iraunkorra izan daiten.

Bizkairako, Euskadirako daukagun apustua harago doa. Gure ustez, euskal erakundeak ez dira aprobegetan ari Ekonomia Itunak emoten deuskuzan aukerak zerga-erreforma sakon bat egiteko; izan be, aurrekontu honeen beste aldea da hori, gure ekonomia lehiakorragoa izan daiten eta ingurune global baten barruan posizinoak berreskuratzeko aukerea emon deigun, familien zamea arintzeko beharrezkoa dan zerga-erreforma bat. Izan be, familiek ikusten dabe, azken urteotan euren erosteko ahalmena txikitzen joan dala, ez dirala batera joan proporzino berean presino fiskala arintzera bideratutako neurriakaz.

Zerga-bilketak sano arin lortzeko gogo horrek baztertu egiten dau zergak herritarrek ordaintzen dabezala eta presino fiskal gero eta handiagoari men egiteak gure erosteko ahalmena murrizten deuskula, eta gure ondasunak non inbertidu edo gastetan doguzan erabagiteko dogun askatasuna oztopatzen deusku. Neutraltasunaren, ekidadearen, efizientziaren, gardentasunaren, sinpletasunaren, malgutasunaren eta nahikotasunaren oinarritzko printzipioak onartzen doguz. Baina zergak jatsi egiten doguz, edo ahal dan guztietan zergak jatsi egin gura doguz. Salbuespeneko zerga-politikak indartzearen aldekoagoak gara, eta lehentasuna emoten deutsegu gehien behar daben kolektiboei dirulaguntzen politikei baino. Zergen arloan oso argiak gara, zerga bajuak jarduera ekonomikoa suspertzeko eta indartzeko biztugarriak dira, baita enpleoa sortzeko biztugarriak be.

Funtsean, hori da Bizkaiko Alderdi Popularrak Bizkaiko herritarrei aurrekontuetarako zuzenketa-eskeetan egiten deuten proposamena. Baina sailen araberrako berezitasunak alde batera itxita, zuzenketa-eske horreek agirian ixten dabezan eta erakutsi ditudan kezkek alde batera itxita, ez neban esan barik itxi gura gure ustez aurrekontu hau exogenoa izan dela, neuk esan dot. Esan gura dodana da kanpotik etorri dala, eta iruditzen jat gaur Batzar Etxe honetatik aterako dan ituna exogenoa dala, eta kanpotik be emonda etorri dala. Ez dot derrigortuta esango, hori inoiz ez dakigulako, baina esan daigun erakundeen barruan ez dala landu. Izan be, ezpabere, ez da ulertzen. Eta Bilduk bere osoko zuzenketa-eskean azaldu ebazan errazoibideetako bat baino ez dot irakurriko, nahikoa adierazgarria dala uste dodalako: “una vez analizado departamento por departamento, encontramos más razones para manifestarnos en contra de este proyecto presupuestario de 2025”.

Egia esan, asko aldatu behar izan dau Bilduren jarrearek, edo Aurrekontuetan aurkitu dauena gobernu taldearen Aurrekontuei babes esplizitua emoteko. Benetan, gu harrituta eta kezkatuta gagoz; izan be, EAJk PSOEgaz daukan itunagaz, legegintzaldiari begira bizkaitarrei proponiduten deuten ereduja Bildugaz itun hori bada, Bizkaian datozan urteetan hondino oso beharrezkoak diran proiektu eta politikei ekiteko bide txarra da, nire eretxian.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

A continuación, el señor Zurro Tobajas, representante del grupo Socialistas Vascos, tiene usted la palabra.



El Sr. **ZURRO TOBAJAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ahaldun jaun-androk, Ahaldun Nagusi andrea, foru-diputadu jaun-androk, konbidauok, komunikabideetako kideok, buenos días a todos y a todas.

Osoko Bilkura honegaz gaur amaituko dogu Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak behin betiko onartzeko Legebiltzarraren izapidea. Beste era batera esanda, Bizkaiko Foru Aldundiak datorren astean hasi ahal izango dau 2025eko ekitaldia, Bizkaia Denontzat aginte-planean zehaztutako politikak abian jarteko ezinbestekoa dan tresneagaz. Sailatuko diputadu arduradunek egin ahal izango dabe, baina testuinguru konpleju baten egin beharko dabe, euren konplejutasun osoan ulertu behar dan une baten, daborduko azaltzen diran beharrei eta, zalantza barik, datorren urtean sortuko diranei erantzun ahal izateko. Eta, talde sozialisteak, horretarako pentsau dan aurrekontua dala uste dau, herritarren, oraingo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko.

Jakin badakit gaur bi zeregin ditugula eguneko lehenengo Osoko Bilkura honetan. Lehenengoa, Alderdi Popularrak eta Elkarrekin Podemosen erreserba dabezan zuzenketa-eske partzialeri buruz erabagitea da. Zuzenketa-eske horreek Batzordean eztabaidatu eta bozkatu dira, eta, beraz, nire taldeak ildo beretik bozkatuko dau, zuzenketa-eske horreek atzera botako dauz eta Foru Gobernuako sail bakotzeko aurrekontuen aldeko botoa emongo dau. Eta horixe izango da gaurko lehenengo Osoko Bilkurearen bigarren zeregina, Aurrekontua behin betiko onartzea. Halanda ze, nik arreta gehiago jarriko dot bigarren zeregin horretan proiektuaren alde zergaitik bozkatuko dogun azaltzeko.

Orain dala pare bat hilebete, Aurrekontu Proiektua aurkeztu zanean, Euzko Abertzaleak eta Sozialistak taldeak proiektuaren maminari buruzko alkarrizketa zabala izateko deia egin eutseen gainerako taldeei; izan be, orain dala bi aste esan geuntsuen lez, edozein gobernuaren betebeharra da euren proiektuatarako ahalik eta babes gehien bilatzea. Gobernagarritasun- eta egonkortasun-egoera bat eskaintzeko laguntzak bilatzea, eta interes orokorra jagotea. Beharrezkoa da akordio horreek proiektu guztietan bilatzea, batez be herritarren ondoizatean eragiten daben proiektuetan. Eta aurrekontu batek personaren eguneroko bizitzan zuzenean eragiten daben politikak, programak eta baliabide ekonomikoak jasoten dauz.

Horregaitik zan garrantzitsua alkarrizketa hori eta akordioen bilatze hori. Eta gaur, harenbaten, 2025erako Bizkaiko Aurrekontua 5 ahaldunen oposizinoagaz bakarrik onartuko da, horixe entzun dot, eta horrek aldaketa nabarmena ekarriko dau aurreko ekitaldiak alderatuta. Eta, lehenengo eta bat, uste dot gure burua zoriondu behar dogula argi eta garbi berba egiteko gai izateagaitik; eta, bigarrenik, Ganbera honetan gehiengo daben 3 taldeen artean akordio bat lortu dalako.

Hara, testuinguruaz berba egitearren, joan dan Osoko Bilkurea egin zanetik, ikusi ahal izan dogu zelan erabagi diran aurrekontuak beste bi lurralde historikoetan, hainbat udaletan, edo zelan onartu dan Euzko Jaurlaritzak datorren urtean gauzatuko dauen aurrekontua. Kasu horretan, Euskadiko Alderdi Sozialistaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen gehiengoagaz baino ez. Baina emoten dau talde politiko guztiok ulertu dogula ze garrantzitsua dan herritarrei gure ondoizate-sistemari eutsiko deusagula eta sistema hori hobetuko dogula ziurtatzea, arriskuan jarten daben mehatxuei aurre egiteko. Eta hori albiste ona da, eta guztiok nabarmendu beharko geunken zeoz. Gero akordio zehatzari buruz berba egingo dot.

Orain dala bi aste esaten neutsuen egoera ekonomiko ona bizi genduala. Izan be, garai haretan egiten ziran aurreikuspenetako batzuk arabere gehiago hobetu dira. Eta, politika orokorreko eztabaidan, Mikel Torres lehendakariordea parafraseata, esaten neutsuen datu makroekonomiko handiak jentearen eguneroko bizitzan ikusi behar zirala. Ba, emoten



dau babes handia daben erabagi batzuk datu handi horreek lurreratzera bideratzen ari dirala. Ganbera honetan be eztabaidak sortu dabezan horreetako batzuk baino ez dodaz aitatu.

Joan dan abenduaren 23ko 9/2024 Errege Lege Dekretua harainegun sartu zan indarrean, eta ekonomiaren eta garraioaren arloan preminazko neurriak hartzen ditu. Horrezaz gain, gizarte-kalteberatasuneko egoerei aurre egiteko neurri batzuk luzatzen ditu. Berbarako, energia-eraginkortasunagaz edo etxebizitzegaz lotutako gaietan, kontsumitzaile kalteberak babesteko neurriakaz, esaterako, uraren, argiaren eta gasaren oinarritzko hornidurak eteteko debekuari eustea, edo elektrizidadearen bonu soziala. Mobikortasun elektrikoa bultzatzeko neurriak, ibilgailu elektrikoak erosteko hobariak emonda. Etxebakotzeak eta beste bizitoki-aukerarik ez daben etxe kalteberetarako kaleratzen etenei eusteko neurriak.

Erabagi horreen artean, jakin barri dogu hilebete amaieran pentsinoa kobretan daben Bizkaiko 300.000 pentsinodun baino gehiagori urtariletik aurrera, %2,8 eta %9 artean igongo jakela jasoten dabena, jasoten daben pentsino muetearen arabera. Hau da, pentsinodunen erosteko ahalmenari eustea lehenesten jarraitzen da. Jakin barri dogu Bizkaiko 15.460 etxetan jasoten dan biziteko gitxieneko diru-sarrerea (35.951 onuradun) %9,1 handituko dala. Jakin barri dogu indarrean jarraitzen dauela Estaduak garraio publikoaren deskontuak 2025eko bagilera arte eusteko egiten dauen ekarpenak, eta horri esker, Bizkaian garraio publikoaren erabilereari %50era arteko hobaria emoten jarraituko dogu. Eta Espainiako Gobernuak 2025erako garraioari laguntzeko egindako proposamena be ezagutu barri da. Hori bai, horretarako, bidaia anitzeko bonu eta tituluetarako deskontu progresiboak ezarteko konpromisoa sinatu behar dogu. Akordio hori badaukagu Euskadin orain dala hilebete batzuetatik hona, hau da, egoerearen araberrako neurrietatik egiturazko neurrietara igaro behar dogu.

Euskal erakundeen arteko akordioa be plazaratu barri da, 2025eko lehen hilebeteetan 12 urtetik beherakoentzako garraio publikoaren doakotasuna martxan jarri daiten. Eta bizikleta publikoak erabiltea be hobaria izango da Estaduaren ekarpen bategaz, zerbitzuaren titular diran administrazioek be euren ekarpena egiten badabe. Bizikleta publiko alkarbanatuta erabilteagaitik hobaria emongo da, %50eko deskontuagaz, tokiko eta udalaz gaindiko erakundeek euren zatiagaz finantzetan laguntzen badabe.

Halanda ze, administrazioek mobikortasun iraunkorraren, garraio publikoaren erabilerearen eta mobikortasun aktiboaren alde egiten daben apustuak sendotzen jarraitzen dau, eta neurri horreekaz hasieratik ezarritako bi helburuak bilatzen dira: deskarbonizazioa sustatzeko neurriak abian jartea, gure kale eta errepideetatik ibilgailu pribaduak ateratea, horreen erabilerea murriztea eta erregai fosilakazko mendekotasuna, batetik, eta isurketa kutsatzaileak murriztea, bestetik; eta deskontu horreekaz garraio publikoaren errentarik ahulenak diruz laguntzea, kasu horreetan gehien behar daben errentei.

Hori guztia aurrekontu publikoen erabilgarritasunaren adibide da; izan be, jenteari zerbitzu publikoak, laguntzak eta eskubideak luzatzeko era bakarra gaur eztabaidatzen ari garan moduko arauak eta Aurrekontuak onartzea da.

Horrezaz gain, jakin barri dogu Ekonomia Itunerako Batzorde Mistoak datozen 3 urteetarako defizit- eta zor-helburuak finkatu dauzana, eta horrek berretsi egiten dau aurrekontu horreetan finkatutako etorkizuneko egoera ekonomikoa; izan be, zuhurra, orekatua eta errealistea izanik, aurrekontuek datozen urteetan hazkunde iraunkorrak aurreikusten dabe: %3,42 2025ean; %4,37 2026an eta %3,31 2027an.

Hau da, laburbilduta, hainbat erakundetean hartutako akordio politikoak, hainbat eremutan eta alderdi desbardinen artean hartutako neurri zehatzak, gure ondoizate-egoereari eusteko eta berori indartzeko. Egoera ekonomiko horri esker, ahalik eta zuhurtasun



handienagaz eta errealismo eta baikortasun nahasketa bategaz begiratu ahal izango deusagu etorkizunari, eta aurrekontu publikoakaz, zifrak politiken ondoan jarri daiguzan.

Hori da testuingurua, eta, testuinguru horretan kokatuta, argi dago taldeok jarrera desbardinak dituguna erronkei aurre egiteko moduaren inguruan. Batzuetan desbardintasun horreek zehetasun hutsak dira, beste batzuetan desadostasun sakonak, Alderdi Popularrak eta Elkarrekin Podemosek aurkeztu eta eztabaida honetarako gorde dabezan zuzenketa-eske batzuek erakusten daben moduan.

Lehen, ezbardinaren arteko akordioaren garrantzia aitatu dot. Sozialistok nahikoa dakigu horri buruz, eta kontu publiko horreentarako lortutako negoziatzinoari eta alkar ulertzeari jagokon balio politikoa emon gura deusat, horreek dira-eta lurraldearen funtzionamentu egokirako funtsezko tresnea. Alkar ulertze hori sano alderdi ezbardinaren artean emon da, eta, halanda be, batez be, Gobernuaren negoziatzino-gaitasuna nabarmendu behar dan akordioa izan da. Izan be, proiektu hau aurrera aterateko behar besteko babesa izan arren, Euskal Herria Bilduren neurriak eta proposamenak sartzearen alde egin dau, eta alderdi horrek Aurrekontu honen aurka ez bozkatzea lortu dau.

Herritarrek ondo dakie bakotxak ze ahalegin egiten dauen, eta zer egiten dogun epe luzean edo une jakinetan. Eta seguru nago etorkizuneko laguntzakaz Gobernu honek Bizkaiari eskaintzen deusan egonkortasuna autortzen jarraituko dauena. Beti egongo gara alkarriketarako prest; halanda ze, espero daigun gaurkoa ez daitela izan unean uneko laguntza bat egoerearen araberrako pragmatismoagaitik, ezpada erantzukizunez eta begirada luzeaz, aurrerapen-oinarri sendoak finkatu gura dabezalako izango dala eta Bizkaiaren aldeko benetako apustua egin gura dabelako. Izan be, ez daigun ahaztu zertan oinarritzen dan akordio hau, hau da, Euskal Sozialisten eta Euzko Abertzaleen akordioan oinarritutako jatorrizko proiektuan.

Orain dala 3 urte, 2021ean, hauteskunde autonomikoak egin barri ziranean, ia orain lez. Orduan, pandemiatik apurka-apurka ateraten ari ginan, eta 2021eko aurrekonturako honen antzeko akordio bat lortu zan Eusko Legebiltzarrean, 3 protagonista berberakaz. Eta datu hori gogoratzen dot, aurrekontu hori errekupezazinoarena zalako, eta benetan akordio handiak behar zituan; 2021eko aurrekontua zan. Aurrekontu haretan, ez dakit zergaitik, pandemiaren erdian, ez zan inor altzau Gobernuari laguntzeko, aurrean eukanean azken urteetako historiako erronkarik garrantzitsuena.

Hurrengo urtean, Euzko Abertzaleak eta Sozialistak aurrekontuak aurrera aterateko gehiengo nahikoa eukan Gobernu bateko kide ziran, eta, halanda be, 2021eko bakardadearen esperientziagaz, 2022ko aurrekontua itundu eben, hemen itundu dogun moduan. Orduan, orain lez, Bizkaiaren be berba egin zan eta Euskal Herria Bilduk proponidutako hainbat neurri negoziatu ziran, eta neurri horreek hainbat ekitalditarako programa eta politika publikoak gehitu, aldatu eta indartu ebezan. Baina harek iraun ebanak iraun eban, eta Eusko Legebiltzarrean ez da barriro errepetidu. Halanda ze, balio politikoa? Dana, bai, baina ikusiko dogu zelan irauten dauen denporearen joan-etorrian, egoerea arabere gatxagoa danean.

Edozelan be, uste dot herritarrei akordio honen ondoren aurrekontuetan benetan sartuko dana interesetan jake gehiago. Publikoa da, Aldundiaren webgunean dago, eta ez naz zehetasunetan sartuko, eztabaidak horretara eroaten ez bagaitu behintzat. Baina, funtsean, akordioak hainbat arlotan jaso ditu neurriak.

Etxebizitzaren eta gazteen emantzipazinoaren esparruan, Etxebizitza eta Hiri Agendearen Ministerioagaz lankidetzan, barbarako, etxebizitza-merkadu tentsionautako eremuetan alokairu-prezioen indizeak zehazteko; biztanleriaren zahartzearen arloan, zaintza-sistema publikoan eta komunitarioan aurrera egiteko; lurralde-kohe-sinoan eta -orekan,



eskualde-garapena indartzeko, tokiko eta eskualdeko eragileak inplikauta, esaterako, trantsizino berdeari eta energia barriztagarriei lotutako proiektu barrietan; lehen sektorearen sustapenean, ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasunaren ikuspegi bikotxetik; mobikortasun iraunkorraren, oinezkoen eta bizikleten mobikortasun aktiboaren eta azpiegituren esparruan, eta, azkenik, gure industria-ondarea manteniduteko, jagoteko eta sustatzeko ezinbesteko espazioetan.

Euskal Herria Bilduren ia hogeta hamar proposamen adostu dira Euzko Alderdi Jeltzaleagaz eta Euskadiko Alderdi Sozialisteagaz, eta Foru Aldundiko Gobernuaren konpromisoa indartzen dabe daborduko hemen ditugun erronkei aurre egiteko: garapen sozio-demografikoa, gazteentzako edo zaintza-sistamarako neurriak, klima-aldaketearen aurkako burrukea, lehen sektorea, mobikortasun iraunkorra edo energia barriztagarriak, hau da, hogeta hamar bat, ia hogeta hamar proposamen, bide zuzenetik doazanak.

Amaitzen nabil. Orain dala bi aste esan neutsuen Foru Gobernuari babesa emoten deusagun taldeok tematuta gagozala akordioak eta adostasunak zabaltzen, gure betebeharra dalako, eta seguru gagozalako hori dala herritarrek eskatzen dabena. Esaten neutsuen aurrekontu bat defendiduten genduala alkartasunaren, justizia sozialaren eta bardintasunaren mehatxuei erantzuteko. Eta gaur be gauza bera pentsetan jarraitzen dogu. 816.000.000 baino gehiago Gizarte Ekintzarako, Enplegurako, Kohesiorako eta Berdintasunerako; 100.000.000 baino gehiago enpleo-politika publikoetarako, laneratzeko, ekintzailetzarako eta enpresa-sustapenerako. 454.000.000 azpiegitura-politiketarako eta mobikortasun iraunkorrerako. 1.170.000.000 euro gure udalak finantzetako. Edo 200.000.000 baino gehiago larrialdi klimatikoaren aurka burrukatzeko politikak indartzeko, kulturara eta kirolera sartzeko, eskualde-garapenerako edo lehen sektoreari laguntzeko.

Horreek dira publikotasunaren etsaien burugogortasunari eta erasoei aurre egiteko proposamen politikoakaz batera datozen zifra handiak. Zifra handiak dira gure ondoizate-sistemea indartzeko, eta horri ekin degion. Nik uste dot hori dala Bizkaiak behar dauen aurrekontua, eta, horregaitik, ahaldun sozialistok babestu egingo dogu gure botoakaz datorren astean indarrean sartu daiten.

Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Zurro Tobajas.

A continuación, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Casanova Alonso, tiene usted la palabra.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Buenos días a todos y a todas.

No soy muy dado a extensos saludos, pero en estas fechas del año entiendo que es oportuno desear unas felices navidades a todos y a todas y un feliz año nuevo a toda la comunidad de esta Cámara, a junteros y junteras, a miembros del gobierno, al colectivo trabajador, a los y las periodistas y a quienes nos están viendo. Así que, tengan unas buenas navidades, feliz año nuevo.

El extenso procedimiento presupuestario llega a su fin y creo que ya se conocen los resultados y las líneas generales, pero, bueno, hagamos un cierto resumen o aprovechemos esta última sesión para ello.



Comenzaré por las dos menciones hechas en las primeras intervenciones. Es cierto, luego habrá réplicas y ahí nos centraremos en comentar en profundidad algunas cosas que se han dicho, pero tanto el representante del PP, el señor Pagadigorria, como la señora De Madariaga, de Elkarrekin Podemos, me comentaron un par de cosas, y creo que me vienen bien para iniciar el discurso.

El representante del PP ha dicho que EH Bildu ha escrito en su enmienda a la totalidad que no son unos buenos Presupuestos y que existían razones para manifestar una negativa, y estamos de acuerdo; estos no son unos buenos Presupuestos. Estos no son nuestros Presupuestos, y por eso Euskal Herria Bildu no va a votar a favor de estos Presupuestos, se va a abstener por diferentes razones que luego explicaré.

Y tengo que decirle a la señora De Madariaga, que agradezco y me alegro de que haya repasado nuestros discursos, y de seguirlos con atención. Y usted ha comentado que nosotros/as al principio de la legislatura extendimos la propuesta o hicimos un llamamiento para construir una alternativa de izquierdas en este país. Y yo creo que con toda seriedad y tranquilidad puedo decir hoy que Euskal Herria Bildu es una alternativa más sólida tras este proceso de Presupuestos de una forma compartida de liderar ese proyecto de izquierdas.

Para liderar este país y cualquier sociedad compleja se necesitan 2 cuestiones. En primer lugar, el apoyo de una mayoría o de amplios sectores de la sociedad, lo que ya exige un mínimo de capacidad de gestión del pluralismo y de la diversidad dentro del proyecto de uno; y luego se necesita capacidad de diálogo y acuerdo con otros agentes externos, porque no toda la ciudadanía elige tu partido. Entiendo que en este proceso Euskal Herria Bildu ha demostrado su capacidad para avanzar en ese segundo ámbito, y sinceramente, para llevar a cabo acuerdos complejos y de alto nivel político con quienes piensan diferente, con quienes tienen una forma de hacer diferente, y con quienes tienen un paradigma y una cosmovisión política diferente.

Por lo tanto, tengo que decirle al señor Pagadigorria que los Presupuestos son malos, no estamos a favor de estos Presupuestos. Y le diré a Eneritz De Madariaga que con la posición en torno a estos Presupuestos se consolida la alternativa de izquierdas en Bizkaia. Pero entraremos en los detalles luego, en las réplicas.

En política, y nosotros/as operamos dentro de la realidad, una realidad en la que estos Presupuestos contaban ya desde sus inicios con los apoyos suficientes para que salieran adelante. Así que lo que estaba en juego no era si se devolvían estos Presupuestos, si se rechazaban o no. Lo que estaba en juego era la actitud de cada partido en torno a esta cuestión. Y nosotros/as, desde el principio, y por simplificar, veíamos 2 opciones: hacer una buena crítica, o explorar la posibilidad de un acuerdo. Estimo que las dos opciones son dignas; y hemos estado a punto de quedarnos en la primera. Hemos estado a punto de quedarnos porque ha sido difícil llegar a un acuerdo, y si no hay acuerdo, acudimos a la crítica. Resulta necesario. Yo no subestimaré el valor de la crítica política, es imprescindible una reivindicación de toda la alternativa y que cada cual desde su postulado haga esas críticas para hacer una aportación a la pedagogía y al debate político global. No voy a subestimar eso. Pero creemos que también merecía la pena, creíamos que merecía la pena explorar la posibilidad de un acuerdo, e ir a por algunos cambios a corto plazo, porque muchas veces, no siempre, muchas veces, es mejor un acuerdo. Es mejor un medio acuerdo que una hermosa crítica, porque de ese medio acuerdo se pueden conseguir cambios y mejoras a corto plazo.

Para definir estas cuestiones en política, desgraciadamente, no existe fórmula alguna, no es una cuestión matemática. Nos gustaría tener unas fórmulas para saber cuándo el acuerdo es bueno y cuándo es malo, y bueno, combinar unas variables, aplicar la fórmula, y ya está, un buen acuerdo, sí. O malo. Muchas veces, más que ciencia, es arte. Y hay



elementos subjetivos, pero los que marcamos nosotros como condiciones de un posible acuerdo eran al menos cuatro.

Por un lado, que dicho acuerdo no nos obligara a dar un voto a favor, porque no habíamos mostrado una posición favorable ante estos Presupuestos. Que tendría que quedar fuera del acuerdo la derecha; entendíamos que el acuerdo tenía que mirar únicamente a la izquierda. Que tiene que haber medidas interesantes y potentes, y que debería mostrar suficiencia económica. Y todo ello en una condición real concreta, que es la relación de fuerzas que tenemos en Bizkaia, en la que el Gobierno tiene la capacidad de sacar solo los Presupuestos, y en la que nuestra posición quedaría en parte en el simbolismo o en el valor político y no en el ámbito del valor práctico. Y creemos que lo hemos conseguido, que hemos conseguido que la derecha se quede fuera, que hemos conseguido asumir que todas las medidas iban a ser a cambio de una abstención, hemos conseguido un paquete de medidas potentes, luego hablaremos de ello, y tal vez quepa la posibilidad de que luego la señora Eneritz De Madariaga nos diga en contra de cuál de esas medidas está o si alguna le parece de derechas. También conseguimos una dotación económica de valor suficiente para sacar adelante esas medidas.

No diría que hemos conseguido todo o la mayor parte de lo que podíamos conseguir, porque así pondríamos o pondría yo una barrera a nuestra capacidad negociadora, pero bueno, ha estado bien. Y hemos tenido sobre la mesa un referente muy útil en términos económicos; ya se ha mencionado el acuerdo de 2022 en el Parlamento de Vitoria y su traslación proporcional con los Presupuestos de Bizkaia. Digamos que los 33.000.000 que ha habido aquí provistos en el acuerdo, si lo trasladáramos a los Presupuestos de Vitoria-Gasteiz este año, serían más de 250.000.000. Por lo tanto, creo que es una cantidad económica importante por unos votos que no eran necesarios o imprescindibles para sacar adelante los Presupuestos.

Y nos alegramos; nosotros y nosotras estamos contentas, pero creo que otros trabajadores y trabajadoras también pueden estar contentas con estos Presupuestos. Yo creo que tanto en política como en la sociedad en numerosas ocasiones existen los denominados juegos o ejercicios de suma cero, lo que gana uno/a se lo quita al otro/a. Hay un valor limitado y hay una competencia para ver quién se lleva la mayor parte, pero siempre a costa de la otra parte. Pero hay otras dinámicas, otras relaciones, otros juegos o acuerdos políticos, que se llaman *win-win*. A través del acuerdo, cuando se crean nuevos valores, y así todas las partes pueden legítimamente declararse ganadoras o incluso decir que ellos mismos han ganado.

Y yo creo que en este caso estamos ante un acuerdo de este tipo: el Gobierno o los partidos que sustentan al Gobierno, ya ha hablado uno y ha manifestado qué valor ha encontrado al pactar, luego hablará el representante del PNV. Les corresponde a ellos poner en valor lo que han conseguido desde su punto de vista con este acuerdo, pero bueno, nosotros y nosotras también estábamos haciendo un ejercicio de empatía en el proceso de negociación y para determinar el valor de nuestra abstención hemos hecho el ejercicio de pensar qué gana el Gobierno. ¿Eran necesarios los votos? No. ¿Qué ganaba? Demostrar predisposición y capacidad práctica para el diálogo y el acuerdo. Y no solo la predisposición, sino esos acuerdos para ejercer dicha capacidad. Y yo creo que eso es bueno para el gobierno, dialogar sin ser imprescindible, poner en marcha el diálogo, acordar. Eso es bueno para todos y todas, no voy a extenderme más en explicar lo que ha ganado el Gobierno, porque ellos también lo harán, pero bueno, es normal. Yo creo que es una actitud inteligente de la que se han aprovechado.

¿Qué gana Euskal Herria Bildu? Euskal Herria Bildu gana la aprobación de un paquete de medidas potentes. Algunas, es cierto, son adecuaciones de pequeños programas que ya estaban en marcha o estaban vigentes. Otros se adelantan; otros se refuerzan



económicamente y otros muchos son nuevos propuestos por EH Bildu y que no figuraban previamente en los Presupuestos o en las planificaciones del Gobierno. Una serie de medidas potentes, y, además, hemos identificado algunas carencias, algunas carencias importantes de este país que debemos reforzar, hemos hecho algunas anotaciones reseñables al texto presupuestario con un fosforito y hemos dicho “aquí están las prioridades estratégicas, aquí están las carencias más importantes y aquí están las necesidades de refuerzo de las políticas públicas”.

Y en tercer lugar, como se ha comentado anteriormente, un paquete de medidas potentes alineadas u ordenadas en bloques estratégicos, y además, al igual que el Gobierno, hemos demostrado disposición y capacidad de acuerdo, y creo que la ciudadanía nos requiere ese tipo de comportamiento, entre otras cosas, sin renunciar a la confrontación, pero con predisposición a allanar el camino del acuerdo cuando sea necesario y cuando sea posible.

He dicho que el acuerdo es un *win-win* porque gana el Gobierno, gana EH Bildu, pero yo metería un tercer *win*, y afortunadamente ahí se incluyen todos ustedes o estamos todos y todas incluidas. Con este acuerdo gana la ciudadanía vizcaína, porque todas las medidas, todas las medidas benefician a la ciudadanía vizcaína, todas ellas mejoran y amplían los servicios públicos y los derechos de la ciudadanía vizcaína. Y eso es lo más importante. Al fin y al cabo, porque nuestra pugna no ha consistido en ver quién ofende o quién descalifica más al rival político, sino quién es capaz de poner sobre la mesa más medidas eficaces y positivas.

Y, tal y como eso demuestra, el valor es doble por sí mismo, el valor propio de las medidas. Y en segundo lugar, creo que la capacidad de hacer una política constructiva también es un gran beneficio para la ciudadanía. Por lo tanto, creemos que es un acuerdo positivo, y que fruto de este acuerdo, estamos mejor. ¿Eso significa que tenemos buenos Presupuestos?, pues no, no. Lo hemos dicho desde el principio. Por eso, nunca ha estado en nuestra agenda la posibilidad de un voto favorable.

Aquí hacemos política desde diferentes paradigmas, y es lógico. Para eso están los partidos políticos, para organizar la pluralidad de la sociedad, y para sacar propuestas de cada uno de los ámbitos ideológicos.

A veces parece que en los últimos tiempos hemos llegado a ciertos acuerdos en torno a la identificación de los problemas, y eso tampoco es malo, porque en algunos lugares se niega el cambio climático, y parece que nadie lo niega, por ejemplo. Pero luego, cómo hacer frente a eso, ahí ya hay diferencias políticas, y ahí están los diferentes paradigmas, y ahí hay una alternativa desde la izquierda para hacer las cosas de otra manera, sin subfluviales, por ejemplo, y negando al coche privado la centralidad que hay, entre otras cuestiones.

Por eso decimos que, aunque aquí haya un acuerdo, en relación al futuro de Bizkaia habrá diferencias potentes y estratégicas.

Joan dan astean, edo orain dala 15 egun, Pradales lehendakariak Euskalduna Jauregian berbaldi bat emon eban (hemen zagozenetako batzuk be han egon zinien) eta bertan entzun neutsan populismoaz kexetan zala, populismoak gora egin dauela inoan. Politikari guztiak ez garala bardinak esaten eban, politikan sortzen ari dan deserosotasun horretaz kexetan zan. Izan be, argi dago, tira, mobimentu barriak sortzen ari dirana; populismoak deitu leitekez, musturreko eskoiak edo faszismo barriak.

Arazo bat dago eta gertatzen ari dana erakusten dau, eta hori ez da sano gatxa, argi eta garbi pasetan ari da-eta, baina ez da azterketa-ariketa bat egiten zergaitik



gertatzen ari dan jakiteko, zergaitik sortzen diran populismoak, zergaitik sortzen dan eskoi musturra. Ez da azterketarik egiten azken urteetako errenten banaketeari buruz, berbarako. Ez da esaten Estatu Batuetan 2024. urteko soldata errealak 1972. urteko berberak diranik, ekonomia hainbat aldiz biderkatu dan arren, baina beharginakana heltzen dan ekonomiaren zatia bardin-bardina da. Halanda ze, 50 urte horreetan pobretu egin dira neurri baten.

Eta hautsok lohi horrek dakarrez. Hain zuzen be, errealidadea zelan dagoan aztertzeko ariketak egin behar dira, arazoak zergaitik betikotzen diran, zergaitik gagozan larrialdi klimatikoko egoera baten aurrean, zergaitik gagozan bizitoki-larrialdi egoera baten. Eta bai, eraldaketarako analisi eta proposamen estrategikoak eta sakonak egin behar dira, eta hor sortuko dira, esan dodan moduan, errealidade horreei aurre egiteko modu desbardinak, paradigma desbardinak, eta, jakina, guk uste dogu funtsezkoa dala azterketea eta proposamena ezkerretik egitea, eta uste dogu Euskal Herria Bilduk era legitimoan ordezkatzan dauela aukera hori.

Como decía, las medidas son positivas, las medidas eran necesarias, las medidas traerán beneficios y ganancias para los y las vizcaínas. Las medidas se clasifican en 5 grupos y me gustaría mencionar las principales medidas, sin entrar en profundidades.

El primer apartado es el de la vivienda. La vivienda es, sin duda, una de las mayores urgencias que tenemos en estos momentos en esta sociedad. Y ahí se plantean 2 medidas muy interesantes teniendo en cuenta que nuestra capacidad competencial en este ámbito es limitada. La primera de ellas es la entrada en vigor de un nuevo sistema de inclusión de la localización de la vivienda y de los precios en los formularios de la declaración de la renta, que permitirá disponer de los datos reales de qué precios hay cada año y en qué zonas los precios son más altos. Las zonas tensionadas y la evolución de los precios deben ser objeto de un seguimiento exhaustivo y, como hasta ahora, estos datos deben ser elaborados cruzando los datos de las diferentes instituciones.

Y la segunda, más práctica o quizá más tangible, es el compromiso al menos de hacer residencias de estudiantes, un punto de partida para dialogar y para ofrecer ese solar que existe en Leioa para realizar dicha residencia y valorar, asimismo, otras opciones, si las hubiera. La segunda es el cuidado, y algunas medidas de interés en el cuidado. Por ejemplo, la Diputación preparará ya un importe económico si mediante convenio laboral se mejoran las condiciones laborales de las personas cuidadoras, una antigua reivindicación muy justa, por cierto. Digamos que, si eso se materializa, la Diputación tendrá preparada una cantidad de dinero para responder a eso, y ya se ha expresado esa predisposición a mejorar los salarios.

Otra medida importante es la reducción a un mes en los casos de urgencia el plazo para la realización de evaluaciones en el examen de dependencia, y no se trata solo de un compromiso dialéctico, sino que para ello se van a dedicar más recursos al incremento del número de personal empleado público como equipo.

Y una tercera medida, en la nueva sede que se pondrá en marcha en Abadiño se realizará un ejercicio para aportar nuevos criterios en este ámbito de cuidado bajo el paradigma del sistema público comunitario, a través de la innovación social. En el tercer apartado, el desarrollo territorial, y el ecosocial de transición, pensamos que desde la perspectiva de la Bizkaia policéntrica es muy importante dotar a las comarcas de herramientas para el diseño de sus planes estratégicos, y cuando están diseñados, para poder desarrollarlos siempre desde el paradigma de la transición verde, la transición energética, la transición ecológica; y ahí también hemos incorporado algunas medidas de protección al sector primario.

Otro apartado es el transporte, y ahí también la comarca; y ahí también desde la perspectiva de la Bizkaia policéntrica, una importante cantidad de dinero de



8.000.000, para reforzar en las comarcas que tengan peor comunicación, a través de Bizkaibus, que creemos que es una reivindicación muy fuerte en este territorio y que merecía una respuesta, y también otros proyectos, como la variante de Muskiz.

Al final, 3 medidas en torno al patrimonio industrial, con una pequeña cantidad de dinero, pero yo creo que es simbólico, que conectan con nuestra memoria industrial, con la memoria de nuestro colectivo trabajador. Y esto va a ser así. En consecuencia, va a haber una abstención de Euskal Herria Bildu, vamos a ver cómo ha quedado el mapa, porque ya se mencionó antes de si este acuerdo ha tenido un origen endógeno o exógeno, un planteamiento conjunto que Euskal Herria Bildu hizo desde el principio, en las 4 principales instituciones de Hegoalde, para que hubiera un único proceso de negociación.

Uste genduan herrialde honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan daukazan arazoak sano antzekoak dirala, kontuan hartuta gero lurralde bakotxean politika horreen norabidea zehazten daben berezitasun batzuk egon leitekezala, baina uste genduan erronka estrategikoak diranak dirala, eta logikearen arabera erronka estrategiko horreei aurre egiteko garatuko ziran politikek eta aliantzek koherenteak izan behar ebela.

Proposamen hori egin genduan negoziatzino horretarako, lau gunetan aldi berean; ezetz esan euskuen, eta egin genduana da agenda bera helarazo espazio bakotxari, Gasteizko Legebiltzarrari eta 3 Foru Ganberei, eta hori da Euskal Herria Bilduren koherentzia. Gero, egia da nahiko egoera asimetricoa aurkitu doguna, baina ziurtau ahal deusuet ez dala Euskal Herria Bilduren borondatez izan. Euskal Herria Bilduk mamin berberak eta antzeko planteamentu ekonomikoak planteau ditu negoziatzino guneeetan. Eta ez bada akordio bera edo eszenatoki bera lortu leku guztietan zeozter egiteko agindua emon dauena ez dalako izan indar exogenoa izango da, ezpada une bakotxean batzuek gurago izan dabelako negoziatzinoak modu baten edo beste baten egitea.

Daukadan denporea amaitzen ari jat eta ez dot nire berbaldia amaitu gura..., sin agradecer a los portavoces de los otros partidos que han trabajado en la elaboración de este acuerdo, el señor Zurro, el señor Lekerikabeaskoa, y también a la diputada señora Berrojalbiz, ya que su compromiso ha sido importante, su labor técnica y política ha sido imprescindible para la elaboración de este acuerdo, y por supuesto, porque la Diputada General ha estado detrás, ha estado detrás y ha estado delante. Supongo que esto también hubiera sido imposible sin su voluntad, porque han hecho una elección, una elección valiente, y como digo, creo que, en consecuencia, su Gobierno también manifiesta que nosotros/as ganamos, y sobre todo, que la ciudadanía gana.

Una última pequeña reflexión, porque ya me falta poco tiempo. La señora Eneritz De Madariaga ha leído un texto nuestro, o la parte de un discurso nuestro. Desde el inicio de esta legislatura, y ya previamente, pero bueno, desde la constitución de esta Cámara en la nueva convocatoria, desde la sesión de investidura y en todos los discursos de política general el *leitmotiv* de Euskal Herria Bildu ha sido que se están dando cambios profundos en este mundo, que se están dando nuevos paradigmas. La frase que dije incluso, y que se repite muchas veces, es que no es que se estén dando cambios de paradigma, sino que el cambio se ha convertido en un paradigma, se ha convertido en un nuevo paradigma, y que tenemos que responder a eso de forma colectiva. Y tenemos que articular nuevos consensos porque las transiciones y los retos son enormes. Eso no quiere decir que todos y todas tengamos que pensar igual; de ninguna manera. Eso sería ahogar la pluralidad de sociedad. Tiene que haber diversidad, tiene que haber planteamientos diferentes, pero resulta imprescindible construir marcos compartidos y consensos compartidos. Y luego, dentro de ese consenso, se hará una gestión política que recoja la confianza de la ciudadanía, pero es muy importante definir esos



consensos, los acuerdos inclusivos, los acuerdos de país, en torno a nuestra estrategia industrial, nuestro sistema educativo, nuestra transición energética, etc.

Por lo tanto...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Casanova, vaya finalizado, por favor.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Por lo tanto, lo que no sería coherente es hacer un llamamiento continuo, hacer acuerdos a nivel municipal y hacer acuerdos a menor escala, pero dar la espalda cuando existen posibilidades de acuerdos importantes.

Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Casanova Alonso.

Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Señora Diputada General, buenos días a todos y a todas.

En el Pleno de hoy cumpliremos con el último trámite para la aprobación del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos para 2025. En concreto, el debate sobre las enmiendas y la posterior votación del proyecto de presupuestos. Este proyecto, de la misma manera que lo he dicho en los últimos años, se ha gestado a partir del acuerdo entre dos partidos diferentes, que han acordado cuáles son las prioridades de la ciudadanía vizcaína en este momento. Y con un objetivo: cohesión social y cohesión territorial. Para mejorar la calidad de vida. Desde nuestro grupo los votaremos afirmativamente. Y este año también con el acuerdo alcanzado con Euskal Herria Bildu.

Proiektu horrek 1.650.000.000 euro jarriko ditu sailen esku, eta horreetatik 729.000.000 Gizarte Ekintza Sailera bideratuko dira. Sail horrek foru-sailen gastu-eta inbersino-ahalmenaren %44,2 kudeatuko dau, eta horrek agirian ixten dau Bizkaiko Foru Aldundiak personakaz daukan konpromisoa, batez be edadekoakaz, desgaitasunen bat daben personakaz, mendetasun-egoeran dagozanakaz, bazterkeria-arriskuan dagozanakaz edo beste kalteberatasun-egoera batzuetan dagozanakaz. Osogai sozial argia daukan aurrekontu-proiektua da. Partida guztiak kontuan hartzen badoguz, 778.000.000 bideratuko dira arlo horretara.

Erakundeen ekarpenei jagokenez, Bizkaiko udalerrri guztiak finantzetako erabiliko diran 1.170.000.000 euroak aitatu gura nebazan. Aurrekontu-proiektu honek bideragarritasun ekonomikoa ematen deutse gure azken helburuetara bideratutako ekintza batzuei: gizarte-kohesinoa, lurralde-koherencia, jarduera ekonomikoa eta kalidadezko enpleoa.

Aurrekontu proiektu honi zuzenketa-eske partzial batzuk aurkeztu jakoz eta Informazino Batzordeetan eztabaidatu, bozkatu egin dira, eta botoen esanahia justifikau da. Kasu batzuetan baztertu egin doguz, justifikazino-oinarririk ez eukiela uste gendualako, eta



beste batzuetan, oster, lortutako zenbatekoa aurreikusitako helburu horreek lortzeko nahikoa dala uste dogulako.

Beste kasu batzuetan, bideratuezin egiten dabe Aldundiaren funtzionamentu normala zerbitzuen prestazinoan, foru-plan informatikoen kasuan lez. Beste kasu batzuetan, oster, urte anitzeko konpromisoak apurtzea dakarre. Kontratu batzuk indarrean dagoz, mailegu batzuk indarrean dagoz eta errespetau egin behar dira. Eta beste kasu batzuetan, gure agintaldi-planean daroaguzan proiektu estrategikoak baliobakotzea proponidu da, eta horreek gauzatzeko konpromisoa hartu dogu. Gainera, kontuan izan behar da aurrekontuetan sail desbardineta bideratutako kreditu horreetako asko lotuta dagozala foru-eskumenen ondorioz dituan eta sailei eurei jagokezan betebeharrak beteteagaz.

Sailei buruzko laburpen txiki bat egingo dot. Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak 86.000.000 euroko aurrekontua dauka, eta batez be indarkeria matxisteari aurre egiteko partidak aitatu gura dodaz. Igoera handia da, %30eko igoerea; 11,6 milioi euro bideratuko dira. Eta gizarteratze-programak, enpleoa sustatzeko programak, gazte migratzaileei begira. Zuzenketa-eske partzial asko baztertu doguz, Sail honetan uste dogulako esleitutako kopuruak nahikoak dirala.

Ekonomia Sustapen Sailak, 80.000.000. Helburu bat, Bizkaiko enpresa-sarearen lehiakortasuna sustatzea. Hori da garrantzitsuena, batez be ETEena. Eta trantsizino berdean, trantsizino digitalean, I+G+Bn eta beste batzuetan laguntzea. Horretarako, aurrekontuetan hainbat programa sartu dira, talentua erakarteko programea, STEM talentua, eskaria dago. Igoera handia, %23 gehiago, 6,6 milioi. Ekintzailatza-programak, 30.000.000 baino gehiagoko aurrekontua dabenak, eta Ekintzailatzaren Nazioarteko Zentro hori BAT torrean, finkatze-fasean dagoana, emaitza positiboakaz. Industria-zerbitzu aurreratueterako programea, 30.000.000 baino gehiago. Esan dodazan azken bi programak kontuan hartzen baditugu, 1.000 enpresa txikik eta ertainek baino gehiagok jasoko dabez laguntza eta lankidetzat horreek. Eta Bizkaia Orekan Sakonduz programea, eta Sailak egiten dituan koordinazino-lanak, lehentasunezko jarduketa-eremuetan plan estrategikoak era egokian gauzatu daitezkan.

Aitatu dogun akordioaren ondorioak? Garrantzitsua da eskualdeko agentzien lana indartzea toki-garapenean. Eta zuzenketa-eske partzial batzuk ukatu doguz. Zergaitik? Urte anitzeko kredituen aurka joiazalako, adibidez, BECen kasuan, EICren kasuan, Ekintzailatzaren Nazioarteko Zentroaren kasuan. Lankidetzat publiko-pribadua babesten dogu. Urduliz 42 ez da Telefonitari emondako dirulaguntza bat, urtero dinogu gauza bera, eta bat gatz zahartze aktiboko programetan be.

Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Departamentuak, 246.000.000; horreetatik 120.000.000 foru-errepideen 1.300 km horreen mantentze-lanetarako erabiliko dira. Foru-eskumena da; “24 ordu, 365 egun” inoan diputadu jaunak. Eta baita Bizkaian mobikortasuna modernizetan eta eraldatzen lagunduko daben beste azpiegitura batzuk egiteko be. Hor dagoz itsasadarraren azpiko tunela hasteko obrak, Markinako saihsbidea, Enkarterriko jarduketak, Errekaldeko, Elorrioko eta Ermuko zubibidea lako proiektuak idaztea. Bizikletea erabilteko obrak egitea. Hor dagoz Boulevardeko obrak, edo Galdakao eta Larrabetzuren arteko bizikleta-pistea. Gure herritarren ekimenak be egin doguz, Arrontegiko pantailak. Eta, Euskal Herria Bildugaz (Muskizko saihsbidea, Lurralde Planean jasotakoa) egindako akordioaren ondorioz, denporan arindu egin da, eraikuntza-proiektua idazten hasi da.

Gizarte Ekintza Sailak, 729.000.000, igoera handia, 10 milioitik 4 baino gehiago Sail honetara bideratuko dira. Zertarako?, modernizetako, zabaltzeko, eta laguntza-sare horreek hobetzeko edadekoentzat, mendekotasuna dabenentzat, babesbakotasun-egoeran dagozan adinakoentzat. 243.000.000, edadekoen zentroen funtzionamenturako. 100 plaza barri sortu dira. Eta 100.000.000 baino gehiago desgaitasun-programetarako. Eta baita Euskal



Herria Bildugaz lortutako akordiotik eratorritakoak be. Osasun mentala, mendekotasun- eta desgaitasun-egoera batzuk adierazoteko denporea gitxitzea.

Ingurune Naturala eta Nekazaritzak, 77.000.000. Eta hemen bai nabarmendu gura dodaz Suspertze Plana finantzetako partida horreek, nekazaritza eta abeltzaintza sektorea modernizetako, gazteak sektore horretan sartu daitezcan sustatzeko eta praktika iraunkorrak erabili daitezcan. Adostasunaren ondorio dan plana, zalanza barik.

Eta Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailak 208.000.000. Behin baino gehiagotan esan dogun moduan, erabateko konpromisoa daukagu garraio publikoagaz, metroagaz, Bizkaibusegaz, bizikleteagaz, garraio publiko jasangarriagaz eta kalidadezko garraioagaz, eta mobikortasun urriko personentzako programa gehigarriakaz. Eta garraioaren zaintza-lana eta segurtasuna be bai. Ez dogu 4. lineari eta beste trenbide-azpiegitura batzuei buruzko zuzenketa-eske partzialik onartu. Badakizue, Gobernuaren eskumenak dira. Foru Aldundiari hitzarmenak heltzen diranean jardutea egokituko jako. Eta akordioaren emaitzea be bada, ahaztu egiten jatana, garrantzitsua, bizikletearen erabilerea bultzatzea. Eta autobus-zerbitzuen inguruko azterketa horreek, beste aukerarik ez daben eskualdeetan.

Para finalizar, el departamento de Euskara, Cultura y Deporte, 67,5 millones. Promoción del euskera, y principalmente del vizcaíno, en diferentes ámbitos. 43 millones para cultura y patrimonio. Ahí están los museos: el Museo Vasco, la Sala Rekalde y el Museo de Bellas Artes, y las obras que se están realizando. Y programas para el deporte, con el fin de fomentar hábitos de vida saludables, para transmitir valores e incrementar la presencia de las mujeres. Programas que tienen en cuenta las demandas de la ciudadanía y las necesidades del sector, y también como consecuencia del acuerdo, se han iniciado las obras de reparación en el edificio Molinos Vascos.

Este es el presupuesto que presentan el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi, un presupuesto para la mejora de la calidad de vida. Para satisfacer las necesidades de las personas. especialmente para quienes más lo necesitan. Creación de empleo, para generar empleo de calidad. Mantenimiento y mejora del transporte público existente. y para reforzar la cultura, el euskera y el deporte.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urtiaga.

A continuación, pasaremos al turno de réplicas. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Bigarren berbaldi honetan, tira, prest neukan gauza bat, baina bizitzeak beste bide batzuetatik eroaten zaitu batzuetan. Aurrekontu hau 3 alderdi politikok onartuko dabe: Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistek eta Euskal Herria Bilduk. Casanova jaunak esan dau EAJk eta PSEk akordio hori balioesten dabela; zelan ez dabe balioetsiko ba, Zurro jauna argi eta garbi azaltzen ari bazan. Hain zuzen be, zuon akordioak legegintzaldiaren hasieran sozialistek eta Euzko Abertzaleek egindako hasierako akordioa adierazoten dau. Izan be, modu argi-argian esaten ari jatzuez, goiz osoa daroe euren berbaldietan hori esaten.



Eta zuk esan dozu, begira: “nik bi baldintza neukazan akordioa lortzeko orduan; bata, akordioak ezkerraldera begiratu egiala, Bizkaia Denontzat planak ezkerrera begiratzen baeban behintzat, eta eskoialdea kanpoan itxi egiala”. Ze eskoialde dinozu? Ze eskoialdez ari gara? Jakina, akordio honek ez dau Herrialde honetako eskoia kanpoan ixten, ez dau kanpoan ixten. Neurri sorta indartsua dagoala esan dozu. Nik aurrekontu honetan dagozan eta batzordeetan bozkatu doguzan 7 neurriei buruz berba egingo deusut. Zera aitatu dozu: “beharbada gauza batzuetan ez zara bat etorriko sinatu dogunagaz”. Tira, nik, egia esan, eragozpen batzuk ikusten deusadaz horri. 7 proposamen zehatz dira, 1.500.000 euroko balioagaz. Hori da Batzordean bozkatu doguna, esan deusudan moduan. Eta guk hor ez dogu ikusten aurrekontuetan eragin estrategikorik dagoanik, ezta konponbiderik emoten ari zarenik be.

Gure ikuspuntutik, eta zuk esan dozun moduan, legitimoa da, eta nik horretan errazioa emoten deusut, zure jarrera legitimoa da. Ez dot esango halan ez danik, jakina, eta zentzun horretan errespetetan dot. Ez nator bat, baina errespetetan dot. Baina onartu eizu mobimentu hori estrategikoa baino ez dala, kosmetikoa. Zuk aitatu dozu kezkatuta zengozala, hau da, zeozelan garrantzitsuak diran bi elementugaitik kezkatuta zengozala esan dozu, aitatu dozu. Argi-argi adierazo dozu: alkarrizketarako gaitasuna erakutsi eta akordiorako gaitasuna erakutsi. Horrexek kezkatzen zintuan.

Eta, esan dozun moduan, itun honen alderdi sinbolikoa ez dago sinatu dozuzan akordioetan. Sinbolikoa beste honetan dago, hau da, Bizkaiko herritarren beharren gainetik zure alderdiaren interesak eta zure irudia jarri dituzula.

Eta 7 proposamen horreetara noa. Begira, zuen proposamenetako bat mendekotasuna baloretako batez besteko denporea murriztea da, eta premina horregaz bat gatoz. Baina zelan egiten dozue? Zelan egiten dozue? Arabere gehiago ari da handitzen balorazino-zerbitzuaren pribatizazinoa, eta pribatizazino hori, gure ustez, eta uste dot zuon eretxiz be, edo bai behintzat aurrekontu honeek baino lehenagora arte, kaltegarria izateaz gain, Gobernuaren alternatibea zer zan adierazoten eban elementu argia zan, eta uko egin deusazue horri.

Beste neurri bat, 2025ean Bizkaiko garraio publikoaren zerbitzuari buruzko azterlan bat egitea da, eta 200.000 eurotara igoten dau. Batzordean bertan zure alderdikideari esan deusat horrek ez dakarrela ezer barririk. Ez dakar ezer barririk. Gobernu honegaz, diputadu honegaz geuk adostu genduan hori 2023ko abenduko Osoko Bilkura baten, ia idazketa beragaz, berbaz berba.

Eskualdeetakoko lehiakortasun-programeari laguntzeko 500.000 euro dinozue, baina ez da ezelan be aldatzen eskualdeetan gertatzen ari dan garapen-eredua. Eta gai hori, Ganbera honetara arauz besteko proposamen bat ekarri zenduan, ez dakit Arauz Besteko Proposamena zan edo mozino eratorria zan, nik neuk be horixe esaten neutsun. Zure hasierako proposamena beste bat zan, balio handikoa, okerren pasetan ari diran eskualdeetarako garapen-alternatiba bat erakusten ebalako, hain zuzen be. Baina, oster a be, barriro jausten zara gauza berean, beste 500.000 euro jarri dozuz-eta zuk zeuk gogor kritikau dozun eredua indartzeko, eta, jakina, Elkarrekin Podemos ez dator bat eredu horregaz.

Eta gainerako neurriak, Bizkaibizi zabaltzearena eta hondartzetako ur-kontsumoa murriztearena, Osabidezko Hezkuntza Partzuergoaren partida handitzearena edo Molinos Vascos eraikina barritzetako partidea handitzearena..., neurri horreekaz, neurri horreek garatzeagaz egia da bat etorri geintekazana gitxi gorabehera. Horretan ez dago arazorik; neurri horreek neutroak dira, zeozelan esatearren. Baina baeukien partida ekonomiko nahikoa, baeukien. Politiken norabidea be ez zarie aldatzen ari, ez zarie ekarpen barririk egiten ari, ez aurrekontuei, ez Bizkaiaari. Gure ustez, horixe da oinarritzko arazoa.



Eta zera aitatu dozu “gu pozik gagoz”. Izan be, guretzat hori ez da ez poztasunerako ez gogobeteterako errazoaia. Ez dago inongo alternatibarik, ez dago alternatibarik, beste politika batzuen jarraitzaile zarie, kasu honetan Euzko Alderdi Jeltzalearen politikenak. Eta lehen, gainera, zeuk aitatu dozuz akordioakaz jazo diran bi gai garrantzitsu. Tira, akordioakaz eta beste une batzuetan desadostasunakaz, baina Herri honetan sano garrantzitsuak ziran gaien inguruan. Eta, horren haritik, beste batzuei jarraitze horretan, esaterako, Hezkuntzari buruzko Euskal Legean eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legean egin dozuen ekarpena dago; eta hori herritarren eskubideen aurka, esan daigun, tira, eskubideen aurka ez, ezpada Bizkaiko herritarren interesen aurka izan da.

Nik zengozen bidera itzultzeko eskatzen deusuet, Bizkaiko herritarren interesak defendidutera, ez zaitezela inoren atzetik ibili, anaia nagusia edo EAJ 2.0 baziniez lez, lehen esan dodan moduan. Itzuli zaiteze aurreko bidera, Bizkaiko herritarren interesak defendiduten dabezan ezkerreko politiken bidera. Nik uste dot, Casanova jauna, kontu batzuk ez dauzala marketin-kanpaina on batek konponduko, eta hemen lankide on bat genduan orain dala urte batzuk, esaten ebana: “ahate batek lez hegaz egin ezkerro, ahate batek lez karranka egingo dau, ahatea lez mobiduko da”. Aztertu eizu, ea ez ete zaran ahatea izango.

Eta zure berbak bete daizuzala eskatzen deusut, mesedez, inbestidura-eztabaidan esan zenduzanak eta aitatu dozuzanak. Alternatiba eregiteko prest bazagoze, hemen gagoz, gugaz kontau zeinkie, baina ezipabere, gatxa izango da alkarregaz topetea.

Zurro jaunak, eta baita Bagan jaunak be, eta zuk zeuk be esan dozu, Ganbera honetan alkarriketeak daukan garrantzia aitatzen zenduen. Ni bat nator horregaz, ideologikoki jarrera desbardineta kokatu geintekizan alderdien arteko komunikazino-bideak beti zabalik mantenduteagaz. Uste dot, gainera, demokrazia gaur egun dagoan egoeran inoiz baino garrantzitsuagoa dala ariketa hori egitea, eta nik zati hori onartzen dot, eta legegintzaldi honen hasieratik onartu dot. Nire ustez, alde handia dago alkarriketarako borondateari eta zabaltzeari jagokenez, aurreko unadetan baino askoz be errazagoa da-eta.

Baina, negoziiazino honetan, guk ez dogu akordiorik lortu, negoziiazinoetan bi aldeek pausuak emotea garrantzitsua dala uste dogulako, eta nik ulertzen dot zein dan gehiengoan joko. Handia gitxiago mobiduten da, arean gitxiago galtzen dau, eta txikiak arabere gehiago galtzen dau. Baina guk negoziiazino horretan alkar mobidu gura ez izatea aurkitu dogu. Eta zuk, Lekerikabeaskoa jauna, oso ondo azaldu zenduan osoko zuzenketa-eskearen eztabaidan. Hau da, “hori da gure esparrua, ezin deuskuzue eskatu esparru horretatik mobiduteko”.

Eta, tira, gehiengoan joko hori ulertuta, eskatzen geuntsuena da kinu bat egin behar dozuela arean gehiago mobiduteko, arean galdu daizuen, beste aldean dagoanak galdu ez daizan danak.

Eta amaitzeko, hasieran proposamenei buruz berba egin deusuet, bai zerga-politikan, bai energia-trantsizinoaren arloan, bai zaintza-politikan, bai zerbitzu publikoen kudeaketa-ereduan, umeen eta nerabeen arreteak hobetzeko. 206 zuzenketa-eske ziran, eta, gure ikuspuntutik, Foru Gobernuak azken urteotan planteau dauen proiektuaren aurrean proiektu alternatiboa eskaintzen eben. Gure ikuspuntutik, proiektu hori hobeto egokitzen jako eta hobeto erantzuten deutso gaur egungo errealdadeari, Bizkaiaeren etorkizunari. Gure ikuspuntuaren arabera, 206 zuzenketa-eskeak koherenteak ziran, eta guztien bizi-kalidadea hobetzera bideratuta egozan, gizarte lez daukaguzan erronkei eta eraldaketei erantzuteko.

Eta gure aldetik besterik ez, eta eskerrik asko.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martin.

A continuación, el representante del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke, tiene usted la palabra.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Buenos días de nuevo. Muchas gracias.

Ikusi daigun. Gauza batzuk aitatu dira. Ez dogu ahaztu behar aurrekontuak eta zuzenketa-eske partzialak eztabaidatzen ari garana. Nik, jakina, nire aurretik berba egin dozuenoi erantzutearren, baina ez dakit Zurro jauna gaur Gobernuaren ordezkariorde lez etorri dan, Moncloako bozeroale lez edo Espainiako legebiltzarkide lez. Gogoan daukat aspaldi guri esaten euskuela: “ez, Madrilera begira zagoze, tira, sano kezkatuta zagoze honegaz...”. Benetan, zuri entzunda, izugarria da, itun bat baino ez zaralako justifiketan ari, eta barriro dinot, itun hori eginda emon deutsue eta eginda ekarri deutsue. Nik ez dot egingo, jakina, eta beti entzungo deustazue hemen, nik ez dot deabrutuko aurrekoek itundu dagiela. Danak sano helduak zarie gura dozuen adosteko, horrelantxe dinotsuet, estimu handiagaz.

Badakizu Euskadiko lehendakari sozialista bakarra PPgaz egindako itun bati esker izan zana. Hau da, esan gura dot zuek beti itundu dozuela, eta primeran iruditzen jat. Itundu eizue, baina gero be arduratsuak izan behar gara. Egia da, nik uste dut, gainera, 3 aldeko itun honek, eta zuek Bizkaia eta, kasu batzuetan, Euskadi erabat gaititzen daben beste errazoi batzukaitik Bildugaz daukazuen itun honek, ba tira, zure alderdian baten batek erabagitako elementu batzuei erantzuten deutsela, eta horreek, jakina, buruzagi historiko sozialista askori be ez deutsela ilusino handirik egingo.

Baina, itun honeetan eta gura dozuenean zuon boto-emoileen aurrean zeuok erantzun beharko dozue, eta zuon boto-emoileen eretxian hori zoragarria bada, ba, tira, aurrera. Baina, benetan, zure berbaldiak nahiko harritu nau.

Casanova jaunari, gauza bera. Hau da, niri ederto iruditzen jat zuek ituna egitea. Baina nik bi zehetasun egiten deutsudaz. Bat: uste dot euskaldun guztiek uste ebela Bildu alternatiba bat izan ahal zala, ezta? Eta orduan, mobimentu horreek alternatiba-sentsazino hori lausotu egiten dabe. Baina gauza bera, zuen boto-emoileen aurrean erantzun beharra dago, ezta?, aurrekontuari berari buruzko inkoherentzia batzuk alde batera itxita. Izan be, aurrekontuak eredu argia dauka hondinokarren, alderdi bera ari dalako gobernetan 40 urteokaz. Hau da, eredu bat eta dinamika batzuk dituala esan gura dot eta 30.000.000 eurogaitik ez dozue ia ezer aldatuko, kontra egiten ari zarien proiektu handiak alde batera itxita (Guggenheim, itsasadarpekoa, etab.). Halanda ze, tira, horrek, nire ikuspuntutik, aukerea lausotu egiten dau, baina tira, primeran. Herritarren gizarte-mobimentuen aurrean be erantzun beharko dozue. Hori bai, hemen be ez dogu esango batzar-etxe honetako eskoi bakarra PP danik, ados? Izan be, gura izan ezker, hemerotekara joango gara. Eta, jakina, eskoiez ari garala, ez gaizuez itxi gure 3 batzarkide bakarrek eskina horretan, zentrokoa edo zentro eskoikoa deitu geinken proiektu baten ordezkari lez, ados?

Eta Bagan jaunari, sano ondo erexten deusat aurrekontuez egin dozun azalpenari. Aurrekontu honeek proponiduten dabena, funtsean, zeozelako kontinuumoa da, esan genduan osoko zuzenketa-eskearen aurkezpenean, eta orain be horixe dinogu. Ia legegintzaldiaren erdian gagoz, eta faltan asmetan doguz Bizkairako proiektu urratzaileagoak edo barritzaileagoak. Bizkairako gobernu taldeak dituan proposamen horreek, EAJ eta PSOEnak, hondino EAJ eta PSOE.



Halanda ze, faltan asmetan dogu hori. Egia da ia 800.000.000 dituguna Gizarte Ekintzan, egia da premina bat dana, eta guztiz bat gatoz horregaz. Hau da, zuokaz bat gatoz ikuspegi askotan. Esan deusduna falta jaku.

Ez dakit Bildugaz 30.000.000 euroak sinatu eta 5 minutura *tweet* baten aterateko besterako zan, eta hori be esan behar dot, eta EAJk esateko pozik dagoala Ganbera honetako 46 batzarkidegaz bat egiteagaz eta Ganberearen %90agaz partekatu ahal izateagaz. Tira, ez dakit, hori be argitzen joan beharko zarie, EAJko jaun-androk, hau da, zuok defendiduten dozuen ereduari Bilduk ekarpen handia egingo deusan ala ez. Izan be, nik neuk gaur arte entzun dot zuon ereduak nahiko antagonikoak zirala, bai hauteskundeetan, jakina, zein edozein Ekonomia Batzordetan, Ogasunekoetan edo, azken baten, beste edozein batzordetan be.

Niri primeran iruditzen jat ituna egin daizuela, barriro dinot, baina jentearen aurrean erantzun beharko dozue, Bilduk bere hauteskunde-programan daroazan neurri horreek hartu gura ete dozuezan.

Eta gurera etorrita, zera esaten bukatu gura dot. Oinarrian, gu, PP alderdia, proponiduten dogunaren aurrean Batzar Etxe honetan zeozelako koherentzia izaten saiatzen gara. Eta, barriro dinot, proponiduten dogun Bizkaia dituan erronkakaz edo daukaguzan hainbat erronkagaz bat gatoz. Izugarri kezkatzen gaitu, ez egoera ekonomikoak, benetan ez da-eta txarra, ez da txarra. Dagozan hodeiek kezkatzen gaitue, diru-sarreretan dagozan hodeiek, lehen azaldu dodan moduan, eta ereduari dagozan hodeiek; izan be, urteetako estadistikan ikusten badogu, ez goaz gehiagora, ezpada gitxiagora. Bizkaia gainbehera egiten ari da. Eta, halanda ze, horrek kezkatu egiten gaitu.

Guk mahai gainean jarten dogu eredu ekonomikoa aldatzeko beharra, edo proposamen ekonomikoan aurrera egitea, batez be industrializazioaren bidez. Guk, kasu honetan Bizkaiko Alderdi Popularraren proposamena definidutea garrantzitsua iruditzen jatalako, askotan planteau deusuegu guri behintzat kezkea sortzen deuskun sustapen industrialeko dekalogo hori, 2030ean, 2035ean izango doguzan preminei buruz berba egiten ari garalako.

750.000.000 euro ditugu Gizarte Ekintzan, eta, daukagun biztanleria-piramidearen arabera, gero eta premina handiagoak izango doguz, gero eta handiagoak gizartean, diru-sarrerak beharko doguz, diru-sarrerak beharko doguz. Lurralde bat behar dogu, eta hori da guk mahai gainean jarri gura doguna, askoz lehiakorragoa izango dan lurralde bat, aberastasuna sortuko dauena, mundura askoz be edegiago egongo dana. Eta zergen oinarria zabaldu ahal izan daigula eta ekonomiaren sustapenagaz gehiago bildu ahal izan daigula. Hori da eredu.

Eta arin esatearren, dekalogo horretan atzerriko inbersinoen alde egin gura dogu, zerga-esparru erakargarria egin gura dogu, zerga-erreformaz berba egingo dogu. Espero dot gaur hemen gauzatuko diran itun honeek aldaketaren bat izango dabela erreforma fiskalari begira; izan be, uste dot, edo orain arte pentsau izan dot EAJk defendidu dauen eredu Bizkaiko Bilduren ereduaren aldean sano desbardina dala. Ezpabere, ikusiko dogu orain erreforma fiskalean. Zuen boto-emoilei erantzun beharko deusezue, nire eretxian.

Enpresen biziraupena eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko beharrezkoak diran mekanismoei laguntzea, hori funtsezkoa dalako Bizkaian; I+G+Bn lankidetzara publiko-pribadua bultzatzeko lan egitea; industria-sektorean inbersinoa sustatzea arrisku-kapitaleko, bai, arrisku-kapitaleko eta finantzaketako soziedadeen bitartez; eta enpresak alkartzeko prozesuetarako lege-, administrazino- eta zerga-esparru egokia sustatzea.



Inbersinoen errentagarritasuna arriskuan jarten dauen zerga-figura barririk ez babestea, eta hori sano ondo jakingo dozue zergaitik dinodan, eta zentzun osoa dauka Bizkaiarentzat. Gure interes ekonomikoei kalte egiten deuten zerga-figura barririk ez babestea.

Errentagarritasuna hobetuko daben produkzio-ekipoetan inbersinoak egiten laguntzea. Digitalizazioa bultzatzea, sare elektrikoek ezarpena edo hedapena erraztea, baita 5Garena be. Era berean, izapide burokratikoak eta zergadunentzako beharrezkoa dan administrazio-ahalegina sinplifikatea, eta, orokorrean, gure enpresa esportatzaileei nazioartekotzean laguntzea, kanpo-merkataritzako bulegoen eta ICEXen arteko lankidetzegaz.

Eta hori alde ekonomikoa da; izan be, gainontzeko atalak aurkeztu doguzan zuzenketa-eske partzialei buruz berba egin dodanean osotu dodazala uste dot. Hori da Bizkaiko Alderdi Popularraren proposamena, edo kezka, baliabideak sortuko dituan Bizkaia bat egin gura izatea. Gaur Aurrekontuez ari gara. Aurrekontuak diru-sarrerak eta gastuak dira. Etorkizunean diru-sarrera horreen aukerea euki gura dogu, Bizkaia sendo hori egiteko aukerea, eta horrek zuokaz parte hartzen dogun erronka guztiei, etorkizuneko erronkei aurre egiteko aukerea emongo deusku.

Baina, gure eretxian, eredia, edo Bilduren itunak ezagutzera emoten dauen eredia, edo Bilduk mahai gainean jarri dauen eredia, legegintzaldi honetan entzun doguneraino, Bizkaiak behar dauenetik eta gobernu taldeak egin beharko leuenetik sano urrun dago.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Zurro Tobajas, tiene usted la palabra.

El Sr. **ZURRO TOBAJAS** jaunak: Buenos días a todos y a todas, osterabe.

Pagadigorria jaunagaz hasiko naz, berbaldi harrigarria egin dodala dinoalako. Ez, ez; ez dot uste Gobernuaren ordezkariordea izan neintekenik, ezta Korteetako diputadua be; askoz be apalagoa naz, baina hona Alderdi Sozialistearen politikea defendiduten etorri naz, jakina, tribuna honetan zuk zeuk egin dozun moduan, gaur goizean daborduko bi aldiz, eta ez dakit hurrengo Osoko Bilkuran be hori egitea egokituko jatzun.

Hara, guretzat, Euskal Sozialistentzat bi lehendakari dagoz. Guretzat, bi lehendakari, horrelan sentiduten dogu. Lehenengoan, Alderdi Popularra existidu be ez zan egiten, eta bigarrenean, ez dogu inoiz ukatu Alderdi Popularraren babesa. Baina gogorazoten deusuet ha Euskadiko Alderdi Sozialistearen gobernu izan zala, eta ez zala sasoirik onenean izan. Eta ez genduan orain danok aitatzen dogun laguntzea izan. 2009az ari gara.

Nire berbaldia harrigarria dala dinozu. Ez. Harrigarria zurea da, gaur Alemaniako BPGa edo Frantziako BPGa atzeraldian dagoala esatera etorri zara-eta, jasten ari dala eta beherakadeagaz kezkatuta zagozala. Baina pozten naz ekonomiaz berba egin dozuelako, ez dozuelako inoiz aitatu, eta gaur behintzat berba egin ahal izan dozu arean. Baina zuk, horregaitik darabilzu Alemania, horregaitik darabilzu Frantzia. Izan be, Groucho Marxen



esaerearen bersino askea eginda: “datu batzuk ditut, baina gustetan ez bajatzuez, beste batzuk ditut”. Eta, orduan, Alemania aitatu dot, edo Frantzia.

Hara, Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania aitatu dozuz kezkatzeko errazoi lez, euskal enpresek han saldu behar dabelako. Tira, alde batera itxi dozu Euskadiko lehen bezeroa Espainiako Estaduan gugaz dagozan autonomia-erkidegoak dirala, lehenengo bezeroak, eta hori esan behar zenduan. Eta dinozu Moncloako gauzak saltzen natorrela edo ez dakit. Ez al dago pentsinodunik Euskadin eta Bizkaian? 302.000 Bizkaian. Ez al dago Biziteko Gitxieneko Diru-sarrerearen jasotzailerik? 19.000 eta piku familia, adierazo dot lehenengo berbaldian. Ez al dago Renferen erabiltzailerik Bizkaian?, egon badagozalako, eta garraioaren abonua jasoten dabez. Ez al dago garraio publikoaren erabiltzailerik, edo ez al dago aisialdiagaitik edo lanagaitik autobusez bidaiatzen dauen gazterik edo ikasten Madrilera bidaiatzen dauenik, esaterako?

Halanda ze, gauza horreek, Pagadigoria jauna, kontu handiagoz tratau beharko geunkez. Jakina, zuok, gura dozuenean, Espainiaz berba egiten dozue; ezpabere, Bizkaiaz, ez zoazenean... Begira, guk guztia ikuspegi globala daukagu, Ermutik Europako Batzorderaino gobernetan dogulako. Eta horrek gobernuaren esparru guztietan egoera ikusteko pertzepzinoa emoten deusku.

Datuak. Alemania aitatu dozuz; nik Espainiako Bankuaren datuen inguruan berba egingo deusut, beste batzuetan ondo idazten deuskuzue-eta; Espainiako Bankuaren gaur egungo datuak, baina AIREFen (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Indepentea), Funcasen edo BBVAren datuaz berba egin neike. Begira, 2024rako Espainiaren hazkunde-aurreikuspena %3,1 hobetu da, 2025erako %2,5 eta 2026rako %1,9. Hori da errealidadea, eta gaur ez dozuz horretaz berba egin gura izan, eta horregaitik berba egin deuskuzu Alemaniako edo Frantziako BPGari buruz.

De Madariaga andreak esan dauenari jagokonez, hara, nik ez dot hemen domina-zerrenda olinpikoa zabalduko jenteari laguntzen deusien politketan meritu gehien nork daukan ikusteko. Danok dakigu Kongresua zelan dagoan eratuta, egoera gaxa da. Egoera horretan alkarriketak, akordioak eta alkar ulertzeak aurrera egin behar dabe, batzuetan ukondokadaka, eta Kongresuan sano gaxa da gauzak ateratea. Talde askoren eta persona askoren lehiaketea behar dogu, baina orain arte Kongresuan legegintzaldi honetan egindako bozketen %91k aurrera egin dabe. Horregaitik, alkarriketarako eta alkar ulertzeko espirituari dei egin deusat.

Oraingoz, garraioari jagokonez, Ministroen Kontseiluan onartu dan Errege Dekretu bat daukagu, 19 ministrogaz, Alderdi Sozialistek proponiduta. Orain baliozkotzea falta da, eta Errege Dekretu horren baliozkotzeak 176 diputadu behar dauz. Alderdi Sozialistek 121 jarriko ditu, baina hondinokarren 55 falta jakuz, batuketa txarto egin ez badot. 55 falta jakuz, eta hori da egin behar dogun lana. Horregaitik deitzen deusat beti alkarriketearen eta akordioaren balioari, sinisten dodalako, gainera. Begira, nik beti defendiduko dot taktizismoetatik urrun dagozan demokrazia bat eta politika bat.

Eta EH Bilduri jagokonez, ez dot ezer esango lehenengo berbaldian esan ez dodanik. Akordio zabalen aldeko apustua egiten jarraitzen dot, eta espero dodana da hasi barri dogun alkarriketearen inertzia baliatu daigula.

Eta, amaitzeko, barriro laburbilduko dot zelan ikusten dodan aurrekontua; izan be, nire ustez, aurrekontua zerbitzu publikoak eta herritarren eskubideak bermatzeko edozein gobernuaren oinarriko tresna da. Zerbitzu publikoak eta eskubideak alkarregaz doazalako, alkarregaz doazalako, eta eskubide eta zerbitzu guztiek osotzen dabelako gure ondoizate-sistemea. Hain zuzen be, horrexek bermatzen deusku bizitzako etapa eta egoera guztietan behar dogun arreteta.



Mobikortasunerako eskubidea bermatzeko, kalidadezko garraio publikoa eta azpiegitura modernoak behar doguz. 454.000.000 euro horretarako. Zahartzeko, hazteko edo askatasunean eta ondoizatean hezteko daukagun eskubidea bermatzeko gizarte-babeseko sistema bat behar dogu, bizitzearen etapa guztietan jagongo gaituana, jagoleen eskubideak babestuko dauzana, euren herrialdeetako pobreziatik iges egin, aurrera egin eta gure artean lan egin gura daben personak eskubideakaz hartuko dauzana. 700.000.000 baino gehiago.

Bardintasunerako eskubidea bermatzeko, indarkeria matxistea desagerrarazo behar dogu, gure gizarteko estereotipo patriarkalak gainditu, edo bardintasunean eta askatasunean hezi. Eta bizi-proiektu propio eta autonomo batera eskubidea bermatzeko lan txukunak eta kalidadezkoak emon behar deutseguz persona guztiei, eta etxebizitza duin bat eskuratzeko erraztasunak emon. Ia 100.000.000 Enplegu, Gizarte Kohesio eta Bardintasun Sailerako. Edo 87.000.000 eurotik gora Ekonomia Sustapenerako.

Gure natura-, kultura- eta uri-ondarea kontserbeteaz eta kutsadura barik manteniduteaz arduratu behar gara, etorkizuneko belaunaldiek ingurune osasungarri eta jasangarri batez gozetako eta ondare komunaz eta gure kulturaz gozetako daben eskubidea bermatzeko. Horretarako, 184.000.000. Zerbitzu berberak izateko eskubidea bermatzeko Lurralde kohesioan eta orekatu batez arduratu behar gara, eta udalek behar daben dotazinoa izan dagien. 1.170.000.000 udalentzat eta 157.000.000 Herri Administrazino eta Erakunde Harremanetarako Sailarentzat, behar daben laguntza guztia emoten deuselako.

Horixe da gaur onartuko dogun aurrekontua. Eta, lehen esan deusuedan moduan, sozialisten ahaldunok aurrekontuen proiektuaren alde bozkatuko dogu, eta erreserbautako zuzenketa-eskeen aurka.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Zurro Tobajas.

A continuación, el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Casanova Alonos, tiene usted la palabra.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Buenos días de nuevo.

Lehenengo eta bat, aurkeztu jatazan zuzenketa-eske bat edo zuzenketa-eske bi onartuko ditut, eskoikoa nor dan eta nor ez dan eskoikoa kalifiketeari jagokonez. Alde batetik eta bestetik eskoia kanpoan ixteari buruz berba egin dodala aitatu da. Eta holan da, horixe dauka idatzita ez eukiteak, errepasoan konturatu nazalako estaduko eskoia falta zala, eskoia, ez dakit zelan esan, ez dakit zelan esan, gogor egiten jat esatea inoren ezinikusia irabazten ez dauen persona bat zarala; eskoia musturra, edo musturreko eskoia, Estaduko eskoia, Alderdi Popularreko eskoia..., horretaz ari ginen. Jakina, Madrilen ikusten ari gara, zure burua eskoikotzat daukazu, energia-enpresen eta petrolio-enpresen interes ekonomikoak defendiduteko *lobby*-a osotzen ari zaran alderdi horretakoa, esaterako. Baina, tira, bai, onartzen dot zehaztapen hori egin beharko litzatekela.

EH Bilduk aurrekontuen alde bozkatuko dau? Ez. Zeozer egin ahal izango eban aurrekontu honeek aurrera atera ez eitezan? Ez. Zer egin ahal izango eban Euskal Herria Bilduk? Euskal Herria Bildu egon eitekean kritikearen, pedagogiaren eta diskurtsoaren zatian, eta horixe da batzuetan egin behar dana, ostera be badinot, eta egin leiteken gauza bakarra da. Baina hemen, kritikoak izateaz gain, beste zeozer egiteko aukerea aztertu dogu, herritarrentzat onuragarriak izango diran eta dimentsino kualitatiboa, politikoa eta ekonomikoa izango daben



neurri zehatzak sartzeko aukerea aztertu dogu, eta absteniduteko aukerea kontuan hartzeko bestekoa izan da. Abstentzinoak ez dauka ondorio praktikorik, baina bai ondorio politiko garrantzitsuak.

Akordio batera heldu ginan eta, hain zuzen be, neurri horreek zein izan eitekezan eta zenbateko batzuk zeintzuk izan eitekezan zehaztu zan. Gainera, akordioa publikoa da eta, nire ustez, nahiko zentzuzkoa da, bai nahikotasun politikoari jagokonez, bai ekonomiari jagokonez be. Alde horretatik, gurago izan dogu aurrera egin, apal, gura badozue, baina aukeren barruan ahalik eta gehienetara hurreratzea gura izan dogu gehiengo osoa daukan gobernu baten aurrean; aurrera egin gura izan dogu, beste pedagogia mueta bat egin, ez diskurtsiboa, ezpada neurrien bidezko pedagogia, eta orain herritarrentzat onuragarriak izan leitekezan gauza zehatzak egin. Epe ertain eta luzera alternatiba hori sortzen ari garan bitartean (espero daigun epe hori luzea baino ertaina izatea), baina alternatiba hori sendotzen ari garan bitartean, egitateen eta neurri zehatzen bidetik pedagogia politikoa egiten ari gara.

De Madariaga andrea. Ea, kritikea bai, baina trikimailuren bat edo beste egin dozu. Izan be, zuzenketa-eskeen bidez onartu diran neurriak hartu dituzu. Zuk ezagutzen dozu akordioa bere osotasunean, eta badakizu, errazoi teknikoakaitik, zuzenketa-eskeetara akordio horren zati txiki-txiki bat baino ez dala eroaten. Kopurutan 1.500.000 dira, eta gainerakoa 2025eko lehen hiruhilekoko aurrekontu-aldaketen bidez artikulauko da.

Eta, beraz, mendetasunaren alderdi batzuetan kanpoko errefortzuaz bakarrik berba egiten bada, beste alderdi batzuetan zuzenean beharginen eta behargin publikoen plantillea handitzeaz berba egingo da, eta uste dot hor ez dala hain erraza kritikea egitea; era berean, ez da hain erraza beharginen soldatak handitzeko aurrekontu-zuzkidurak prestau daitezala kritiketea, edo ez da hain erraza kritiketea beharrezko obrak aurreratu daitezala edo Bizkaibusen zerbitzuak hobetu daitezala gehien behar daben eskualdeetan. Halanda ze, ez eizu egin 1.500.000 zuzenketa-eskeei begiratzearen ariketea, partziala eta txiki-txikia dalako. Egizu azterketa bateratua, eta hor ikusiko da, ikuspegi kuantitatiboan zein kualitatiboan, oso, oso neurri interesgarriak dagozala.

Zuok hainbat ahultasun dituan proiektu politiko baten zagoze, eta alderdi askotatik oztopatzen hastea zeuon burua eroan dozuen egoereagaitik..., baina nik ez dot hori egingo. Hain zuzen be, Madrileko Kongresuan zelan funtzionetan dan aitatu da hemen, eta han dagozan lankideek esan deustenez, eztabaida bat dagoan bakotxean dossier bat prestetan dabe, ea nor dan solaskidea eta ea ze harri bota ahal jakozan, Murtziako alkate zanean ea zer egin ete eban..., eta ez dakit zer.

Baina ni ez naz horretan sartuko, ez deusat kritikarik egingo zuon proiektuari, ez dodaz kritikauko egin dozuezan gauzak, bozkatu dozuezan gauzak. Alternatibei buruz berba egingo dogu, eta azalduko dogu zelan eregiten diran alternatibak. Izan be, garai baten, 70eko hamarkadako marxismoaren beroaldian, leku guztietan egozan abangoardiako 30 edo 40 alderdi, baita hemen be. Kontzeptu leninistea zan, proletarioen abangoardia. Zein zan arazoa? Abangoardia horren atzean ez joiala inor, eta inor ez joian ezkerro, bada, abangoardia autotitulauak joiazan, baina benetan ez eukien inongo gaitasunik eraldatzeko eta gidatzeko, bapez. Nire ustez, abangoardia izateko, edo une honetan alternatibea izateko, edo alternatibea izateko aurrera egiteko, edo beste ikuspuntu politiko edo ideologiko batetik alternatibea izateko, nire eretxian, mobimentu politiko indartsu bat antolatze gaitasuna euki behar da, herritarren gehiengoak edo herritarren zati handi batek konfiantzea emon degion besteko mobimentu politikoa. Eta hori ez da maximalismotik egiten, ezta purismo absolutotik be. Izan be, purismo guztien baturea zero da.

Guk konplejutasun bat kudeatu behar dogu, beti balio ideologiko argiakaz, beti ezkerreko printzipio argiakaz lerrokatur, baina malgutasunez, bai ideologiari jagokonez, bai taktikeari jagokonez. Eta guk ez dogu akordio politiko sakon-sakonik egin



maminei jagokenez. Ez neuke hori herri-akordio lez definiduko. Zergaitik? Izan be, aurrekontua ez da gehiegi eraldatu, baina hori ez da gure asmoa. Ez dot uste une baten be ke hori saltzeko asmorik izan dodanik.

Ez dogu esan Gobernua makurtu danik, eta ez dinogu aldaketa estrategikoak lortu ditugunik; uste dot Ganbera honegaz zintzoak izan behar garala, eta, batez be, zintzoak izan behar garala herritarraz.

Daukan dimentsinoa dauka akordio honek; dimentsino handia dauka testuinguru errealean eta ditugun gaitasun errealakaz. Jakina, beste indar-korrelazio bat balego, kontrapartearen negoziazio-ahalmena handitu egingo litzateke. Kasu honetan, zer da esaten ari garana? Baloretan ari gara Gobernuak hori baizen ikutuezina zan zeozer lortu dauela, hau da, laguntzak bermatuta eukazan aurrekontu baterako ezezoak murriztea.

Zelan kuantifiketan da hori? Ariketa subjektibo bati esker, eta gu pozik gagoz emaitzeagaz. Baina, esan dodan moduan, ez dot esango ahal izan genduan guztia lortu dogula; izan be, orduan, hurrengoan ez geunke beste ezer lortuko, beste hurrengo bat badago, baina zentzuzko zeozer lortu dogu, eta gure taldeak berak egindako beste akordio batzuen parekoa, beste talde batzuek egindako akordioak baino askoz hobea.

Eta, gainera, Pagadigorria jauna kezkatuta egon da herritarren erreakzioagaitik, eta, beharbada, Euskal Herria Bilduk honen bidez babes galtzea gura zenduan, baina herritarrek horrelango akordioak eta antzekoak berretsi dabez, hau da, ez gara ezer barririk asmatzen ari. Politika bat egiten ari gara, eta horretan alternatiba estrategikoa, kritika sakona, proiektu jakin batzuetan talka sakona be bateragarriak dira akordio txiki, ertain eta handietara heltzeko gaitasunagaz. Izan be, lehen esan dogun moduan, gizartean suminduta gagoz, gizartea eraldatzen ari da, eta jenteak begiratu egiten gaitu egoera horretan, eta arazo gehiago ez daiguzala sortu gura dau, arazo horreek konpontzen saiatu gaitezala baino, horretan gabilzan itxurea egitea behintzat.

Kasu honetan, nik uste dot bi aldeetatik maila altuko ariketea egin dogula, eta inor ez dala jatsi bere proiektuetatik. Jakina, Gobernuak onartu behar eban aurrekontua onartu dau, eurek egin gura izan dabena, baina guk gure eragin-gaitasunetan ahalik eta aldaketa gehien egin doguz, eta jentearentzat garrantzitsuak eta onuragarriak zirala uste genduan alderdi guzti-guztietan.

29 neurri dagoz, barriro dinot. Esan eiguzue 29 neurri horreetatik zein ez dan herritarrentzako plus bat, abantaila edo hobekuntza bat, zein ez dan eskubideak eta zerbitzuak zabaltzea.

Por lo tanto, creemos que hay que valorar el acuerdo en su justa dimensión. Nosotros/as no pensamos que con esto cambian los derroteros estratégicos, no pensamos que el Gobierno haya dado su brazo a torcer, no era nuestra intención, no era políticamente posible con la relación de fuerzas que tenemos. Creemos que nuestro objetivo es seguir construyendo una alternativa de izquierdas en este País, en este Territorio y en el conjunto de Euskal Herria, y eso nos exige unas veces la oposición, a veces el desacuerdo y otras, el consenso; y siempre el diálogo, siempre hay que hacerlo, siempre tiene que haber la opción del acuerdo. Y si eso no es posible, también es legítima y necesaria la confrontación política, no tenemos miedo a llegar a acuerdos, no tenemos miedo a no llegar a acuerdos. No hacemos cosas para aparecer en las fotos, sin aparecer ya en demasiadas fotos Euskal Herria Bildu es la primera fuerza política de Euskal Herria, y no necesitamos moldear nuestros principios o nuestra actividad política para hacerlo en la foto. Hacemos lo que pensamos, con absoluta convicción. Claro que a veces nos podemos equivocar, pero en este caso creemos que hemos aportado muy bien, sobre todo porque EH Bildu en parte sale ganando, pero puede competir para responder adecuadamente a las necesidades y preocupaciones de la ciudadanía.



Construir una competencia constructiva y un marco constructivo, cuya aportación también es muy importante.

Así que hoy se va a aprobar un mal Presupuesto, vamos a seguir en la lucha estratégica para que haya otro Gobierno, y en los otros parámetros para que haya nuevos Presupuestos, pero hemos hecho lo que estaba en nuestras manos para incorporar a estos Presupuestos algunos detalles interesantes, algunas mejoras interesantes y para mejorar la vida de los y las vizcaínas. Y eso es lo máximo que creemos que podíamos hacer y, por lo tanto, estamos contentos/as.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Casanova Alonso.

Y a continuación, para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Buenos días de nuevo.

Nire lehen berbaldiaren hariari apur bat jarraitzearen, azpimarratu gura neban aurkeztu dogun aurrekontu-proiektu honek kalidadezko zerbitzuak emotea bermatzen dauela, une honetan egiten ari garanak, esaterako, eta zerbitzu horreek egungo beharretara egokitzen eta hobetzen ditu. Eta ostera be azpimarratuko dot aurrekontu-proiektu honek gizarte-sentiberatasunaren izaerea daukala, beharrianak dabezan persona horreei, kalteberatasun-egoeran dagozan persona horreei, edadekoei, desgaitasunen bat daben personei eta babesbakotasun-egoeran dagozan adinbakoei zuzenduta. Izan be, aurrekontuen planteamentuan justizia sozialaren printzipioa dago. Urtero dinot gauza bera; printzipio horrek EAJren politikak eta agenda politikoa markau ditu eta marketan jarraitzen dau.

Era berean, aurrekontu-proiektu honek aukerea emoten dau hainbat baliabide bideratzeko lurraldean lehiakortasun-baldintza egokiak egon daitezkan, produktino-sektoreak finkatzeko eta enpleoa, kalidadezko enpleoa, sortu ahal izan daigun.

Egia da aurrekontu bat personen ondoizatean zuzenean eragiten dauen tresnea dana, baina kontuan izan behar da beti ekonomia indartu eta produktino-jardueran eragin behar dogula. Aurrekontu honek bideragarritasun ekonomikoa emoten deutse programa batzuei, eta programa horreek gehiengo batek hontsu berretsi dauen ekintza politiko bat osotzen dabe. Hori da gure mugea, Bizkaiko gizartearen konfiantzea jaso eban aginte-plana, eta horixe egiten saiatuko gara, konpromiso eta konbentzimentuz. Horregaitik, ni ez nator bat, eta ezin dot ulertu, zuzenketa-eskeen bidez egiturazko aldaketak eta erabateko aldaketak egin gura izatea, gizartearen babes demokratikorik ez dagoanean. Hori ez dot ulertzen.

Emon dan negoziazio-prozesuari jagokonez, talde guztiei eskerrak emoten hasi gura dot, izan daben borondateagaitik eta egon dan alkarrizketeagaitik. Euskal Herria Bildugaz posible izan da akordioa. Egia da beharrezko gehiengoa bageunkana, baina akordio bat beti da positiboa, eta uste dot Bizkaiko gizarteak Batzar Nagusi honeetatik espero dauen mailan egon garala.

Beste batzuetan esan dogun moduan, muga bakarra geunkan: gure agintaldi-plana, gizarteagaz daukagun konpromisoa, emondako berbea; eta gero, logikoa dan moduan, indarrean egoan araudia, eskumenak eta benetako aukera ekonomikoak.



Elkarrekin Bizkaiagaz, egia esan, ez gatoz bat Bizkaiko errealidadeari buruz egiten daberen ikuspegiagaz eta diagnostikoagaz, eta ez jakuz egokiak iruditu gure kudeaketa politikotik ateratako ondorio batzuk. Nire ustez, diskurtsoan kokatuta jarraitzen dozue, betiko lekuan jarraitzen dozue.

Alderdi Popularragaz ezin izan dogu akordiorik lortu. Niri, maila personalean, iruditu jat Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuak baino gehiago beste maila batzuetako posizionamentu politiko baten dagozala. Ez dot ulertu.

Eta Euskal Herria Bildugaz akordio positiboa lortu dogu. Oposizinoan lehen alderdiagaz akordio batera heltzea beti da positiboa. Zabaltzen egiten dau, kasu honetan, aurrekontu honen oinarria, gure aurrekontua, Bizkaiko Foru Aldunditik ateraten dan aurrekontua. 51 eserlekuatik 5ek bakarrik bozkatuko dabe aurka. Inor kanpoan uzten ez dauen aurrekontua da.

Yo pienso que con este acuerdo se abren consensos, fortaleciendo nuestras políticas y nuestro modelo, y seguiremos mejorando los servicios a la ciudadanía, y siempre mantenemos nuestro compromiso con la sociedad vizcaína.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urtiaga.

Y una vez finalizado el debate, debemos someter a votación el dictamen de la Comisión. Como saben, la votación se realiza por departamentos forales, que es lo que haremos ahora. Comenzaremos, comenzaremos con la votación. Debo decir como aviso que en el momento de la votación no se puede salir de la sala. Y para dar inicio a la votación, como he dicho, en primer lugar, someteremos a votación el Departamento de Promoción del Medio Natural y Agricultura. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Promoción del Medio Natural y Agricultura.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Acción Social. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y han sido 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Acción Social.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Hacienda y Finanzas. Podemos votar.



El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Hacienda y Finanzas.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Promoción Económica. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Promoción Económica.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

A continuación, someteremos a votación el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Y, por último, votaremos el texto de los artículos. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 51 votos. Han sido 31 votos favorables, 5 en contra y 15 abstenciones. Queda aprobado el texto de los artículos.

Y, por consiguiente, quedan aprobados también los Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025.

Felicidades, señora Diputada General, y a todo el equipo.

Y, por consiguiente, una vez finalizado el Orden del Día de la Sesión Plenaria, finaliza también la misma.

Y ahora realizaremos un pequeño receso de 10 minutos, para proseguir con la segunda Sesión Plenaria. Nos reuniremos de nuevo dentro de 10 minutos.



Batzarra 11:16an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 11:16 horas.

